

2014ko Iraila

K

Oñatiko Udala 242. ziklo

KONTZEJUPETIK



SARE > Euskal preso eta iheslarien giza eskubideen alde Oñatin sare herritarra osatzeko deia egin dute irailaren 6rako.



'Ezetz da

Eraso sexistak ekiditeko kanpaina jarriko

ezetz!'

du abian Udalak jaiei begira

italde

TALDE ERAIKITZAILE - SUSTATZAILEA

OÑATIKO AUKERARIK HANDIENA

- San Martinen
 - Kurtzekuan
 - Kasablankan
- 3 logela + garaje itxia

PREZIO BEREZIAK!!

*zaboz informazioa

Ramón Irizar kalea 2 • 20560 OÑATI • Tel. 943 782 707 • www.italde.com

➔ Liburutegiko **BERRIAK**

Tel.: 943 71 61 11 | www.euskadi.net/katalogobateratua



ALDIZKARIA
"Traveller"



ALDIZKARIA
"Sport Life"



ALDIZKARIA
"Saber Vivir"



ALDIZKARIA
"Personal Computer & Internet"

Oharra: Liburutegian 62 aldizkari dituzu eskuragarri, gai ezberdinetakoak eta 7 egunetarako etxera eraman ditzakezunak!!



ALDIZKARIA
"Mi Jardín"



ALDIZKARIA
"Digital Camera"



ALDIZKARIA
"Cocina Vegetariana"

Oharra: Liburutegian 62 aldizkari dituzu eskuragarri, gai ezberdinetakoak eta 7 egunetarako etxera eraman ditzakezunak!!

HELDUEN LIBURUTEGIA

Ast.-Ost.:
10:00 -13:00 / 16:30-20:30
Larun.:
10:00 - 13:30

HAUR LIBURUTEGIA

Ast.-Ost.:
16:30 -19:30



TXALOKA Ludoteka

BERRIZ ERE MARTXAN!

Irailean zehar ekintza bereziak eta ate irekiak.

TXALOKA LUDOTEKA

LUDOTEKA HERRIARI ZABALDUZ.

GUTUNAK

Gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Gutunarekin batera igorleraren izen-abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen-abizenarekin argitaratuko dira. Aldizkariak ez du bere gain hartzen GUTUNAK eta IRITZIA orrialdeetan adierazitako iritzien gaineko erantzukizunik.

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 • OÑATI / Tel.:943 78 20 72 / Posta-e: kontzejupetik@oinati.net

Danborradaren antolakuntzak herriari

Eli Cid, Jose Manuel Mata, Miren Errasti, Argiloain Perosterena, Mikel Aranburu eta Pedro M^a Igartua (Danborradako Batzordea)

Abuztuan danborrada nagusiaren inguruan etxeetan jaso den idatzia dela eta, egia da bi hilabete faltan berau antolatzen jarraitzeari uko egin diogula eta arrazoiak azaldu nahi ditugu, garbi utziz ez dela aurtengo ekainean Txosna Batzordekoekin izandako bilerarengatik izan, baizik eta 2012. urtetik bi batzordeek darabilgun tira-bira eta adostasun ezagatik.

Hasteko Oñatiko danborrada betidanik izan da herritik herrixandako. Horren adibide 48 urte hauetan antolakuntzan eta danborrada bertan parte hartu duen adin eta "kolore" guztietako herritar kopurua.

2012ko ekainean Txosna Batzordearen deia jaso genuen. Arazo barik bildu ginen, danborradak ez diolako inoiz inori aterik itxi. Honen isla, danborradan parte hartzerako gonbidatuz urte ezberdinetan luzatu izan diren gonbiteak: ikastetxe, guraso elkarte, Pake-Leku, Saltoka, gazte talde ezberdinak, elkarteak...).

Orduko lehenengo bilera hartan Txosna batzordeak bere iritzia eta nahia adierazi zuen. "Beraiek ordezkatzeko dituzten gazteak ez omen dira orain arteko danborradarekin identifikatzen", hala nola, jantziak (gonak, uniformeak), abestiak, udal musika banda ... Argi eta garbi geratu zen bi danborrada eredu

daudela. Hala ere, herriarengatik eta jaiak liskarretan ez hasteagatik, azken bi urtetan danborrada bakar bat egiten saiatu gara, baina beti buruan txosna batzordeko kide baten esaldia darabilgula "ikusiku herrixari ze danborrada gustaitzen xakon gehixau, zuena edo geuria".

Aurtengoan ere lanean hasi gara (bi danborradekin, nagusia eta haurrena, guretako nagusia bezain garrantzitsua dena), eta ekainean Txosna batzordearekin bildu ginen. Baina garbi ikusten dugu berriro ere bi danborradak bateraezina direla, bi eredu oso ezberdin baitira. Danborrada jaiari hasiera emateko ekintza da, gaueko 00:00tan San Miguel Martxa joaz amaitzen baita, eta ez errebeindikazio ekintza moduan. Horren adibide "jaiak politika dia" esaldia txosna batzordeko ordezkari batek esandakoa.

Gutako batzuren aldetik, bi danborrada ospatzearen aldeko planteamendua ere egin zen (ez zen onartua izan) baina berriro diogu, herriarengatik eta jaiak ondo hasi eta disfrutatzeko asmoz, azken bilera hontan adostasun batera iritsi ginen. Erabakia gure batzordera eramanda eta azken bi urtetako esperientziak eta bileretan esandako guztiak mahai gainean jarrita, eta 2012-2013ko danborradak ikusita, balorazio bat egin eta etengabeko sokatiran jarraitzeak ez digula pena merezi ikusi dugu.

Gure ustez "tren" bat martxan badago, azkenengo igotzen dena bertan dagoenera moldatu behar da. Honekin ez dugu esan nahi inongo aldaketarik edo berrikuntzarik sartu ezin denik baina aldaketak pausoka eta zentzuz eman behar direla uste dugu.

Guzti hauek kontutan izanda, eta mahai gainean aldeko eta kontrako

denak jarrita, danborradaren antolakuntzak, 48 urteren ondoren, pena haundiakin, danborrada uztea erabaki du. Ondo pasau jaiak !!!!!

Danborradaren antolatzaileei esker onez

*Mikel Biain Berraondo
Udal Gobernu Taldian izenian*

Uztailean jakin genuen azken urteetan danborradaren antolakuntzan jardun den batzordeak aurrerantzean nagusien danborradaren antolakuntzaren ardura bertan behera uztea erabaki duela.

Udal Gobernuaren partetik eskerrik beroenak helarazi nahi dizkiegu batzordeko kideei hamarkadetan ekitaldi honen antolakuntzan eginiko lanagatik. Gure herriko jai nagusiei danbor hotsez harrera ezin hobea egin zaio urtez urte eta zer esanik ez, parte hartzaile guztien meritua izan arren, antolakuntzaren ardura izan duzuenok meritu berezia duzuela.

Aurrerantzean ere ziur gaude San Migel eta Errosarixoa jaietan bezperan danbor eta musika doinuak ozen entzungo diala herriko kaletan barrena. Eta hau hala izan dadin, emakume, gizon, edadetu, gazte, heldu... denak animatuko genituzke danborradan parte hartzera.

Gure herriko jaiak horrenbeste eta gehiago ere merezi dute eta.

Eskerrik asko orain arte antolakuntza lanetan jardun zaretenoi eta animo aurrerantzean ardura hartuko duten oñatiarrei!!!!



2014 eta 2015 urteetan ezte bazkaria gurean egiten duen **Usta-Handi** bikote guzlien artean, **Kanariar Uhartetara joateko bi bidai** * zozketatuko ditugu.

* pertsona bakoiti

Informatu zaitez!!

www.etsaundl.com



ZORUA EGOERA TXARREAN



Jakin nahi nuke ea udalak ba ote duen asmorik konpontzeko Kale Zaharretik Aita Madina kalera doan kale-kantoia, Ona tabernaren aldamenean. Auzune osoak berritu ditu udalak, eta 20 metro dituen kale hau oso egoera txarrean dago, bai espaloia eta baita bide adokinatua ere..



2014ko aurrekontuetan ez da aurreikusi partidarik kale hori konpontzeko baina duen egoera tamalgarria ikusirik hemendik eta urtea amaitu baino lehen balorazio bat egin eta 2015eko aurrekontuetan jasotzeko aukera aztertzeko konpromisoa hartzen dugu.

ZABORRAK ERREPIDEAN



Azkenaldian behin baino gehiagotan ikusi dut zabor-poltsaren bat botata bide bazterrean (saihesbidean, kanposanturako bidean...). Hainbat egunez egoten dira bide bazterrean, itxura oso zatarra emanez. Berdin gertatzen da, adibidez, istripu arin bat gertatu den lekuan, kristal zatiak egunetan egoten dira jaso barik errepidean. Hildako animaliak ere ikusi izan ditut egunetan jaso barik. Jakin nahi nuke zeinen ardura den halakoak jasotzea eta garbitzea, eta zergatik ez den lehenago egiten..



Errepidearen titularitatearen arabera, ardura erakunde ezberdinena da. Azaltzen den gaiaren arabera ere prozedura ezberdina da.

Udal titularitateko errepideetan zabor poltsak FCCk kentzen ditu; hildako animaliak aldundiak duen zerbitzu batera deitu behar da eta beraiek arduratzen dira kentzen eta herria faktura ordaintzen eta istripu bateko hondarren kasuan FCC, udal brigada eta udaltzaingoaren ardura izaten da istripua gertatu den orduaren arabera.

Saihesbidea eta Olatera doan bidean aldiz, zakarra herrilan sailak kontratatua duen enpresa batek kentzen du. Animalia hilen eta istripuko hondarren kasuan 112ra deitu behar izaten da eta segurtasun sailekoak arduratzen dira.

Galderari erantzuna aprobetxatu nahi dugu herritarrei dei bat luzatu eta inguruneak zaindu eta zaborra errepidean ez botatzeko eskatzeko. Gertatzen bada, zikina, hildako animaliak edo istripu hondarrak agertzen direnetik kendu arteko epea ahalik eta motzena izan dadin ikusi ahalaz bat udalean parte ematera eskertuko genieke herritarrei (guk ere ezin dugulako uneoro errepide guztien egoeraren berri izan).

Tokiko Gobernuari Galdezka
kontzejupetik@oinati.net
Tel.: 943 78 20 72

PERTSONA NAGUSIEN ZAINZARAKO ZERBITZUA

ADMINISTRAZIO LANAK

- Kontratua egitea
- Gizarte Segurantzaren alta ematea
- Nominak egitea

HAUTAGAIEN AZTERKETA

- Enpresako konfidantza-zako langileak
- Esperientziadunak

Tel.: 943 71 64 79 • bidebarri@terra.com
iurrutia.bidebarri@gmail.com

BIDEBARRI
 English Zentrua



gobernutik

Beatriz Gereka - Bildu

**HERRIA ETA ESKOLA:
ELKARLANA EZINBESTEKO**

Ez da harrizkoa iazko ikasturtean eta hastear dagoen honetan ere hezkuntza gaia bolo-bolo egotea, Madriletik Wert hezkuntza ministroak inposatu nahi digun LOMCE legeak azken urteetako erasorik handiena suposatu baitu. Hamaika aldiz esan dugu lege inposatu, espainolizataile, zentralista, pribatizataile eta segregatzailea dela. Euskal Herriaren eta euskal herritarren kontrako lege arrotza da.

Ez dugu euskal hezkuntzaren kontrako inongo inposaketa eta sasi-irtenbiderik onartzen. EH BILDUtik, hezkuntza eragile, plataforma, alderdi eta sindikatuekin elkarlanerako prestutasuna berretsi nahi dugu eta LOMCEren ez aplikaziorako estrategiak garatuz Euskal Herriak behar duen hezkuntza sistema propioaren alde urratsak ematen jarraituko dugu. Hezkuntzan ere, guk gure bide propioa egiteko konpromisoa hartzen dugu herri gisa dagozkigun tresna pedagogiko eta normatibo guztiak eskuratu arte.

[Handia da eskolak herriari eta herriak eskolari egiten dion ekarpena](#)

Baina burujabetza eta herri bezala dagozkigun eskubideak eskuratu arte zer egin daiteke Oñati bezalako herri batetatik?

Gaur egun errealitatea oso konplexua da eta ezin da pentsatu ikasleen garapena eskolan bakarrik lortzen denik. Familian, auzoan, herrian garatzen da. Prozesu arrakastatsua lortu nahi badugu, inguru guztiak lotuta egon behar du, eskolako lanak jarraipena izan behar du familian eta herrian. Helburu horiek lortze aldera Hezkuntza Mahaia jarri genuen martxan legealdi hasieran. Mahaiaren helburuetako bat guztien partaidetza bultzatzera izan da: familia, elkarreana, eskolena, udalarena... Guztiok batera indarrak lorpenetan ipintzeko. Lorpen batzuk lortu ditugu eta erronka berriak zehaztu beharko ditugu.

Eskolak eragile aktiboak izan behar direla pentsatzen dugu, baina horretarako Herriek aukerak eman behar dituzte eta parte-hartzea bultzatzeko egitura sendoak eskaini. Bide horretatik aurre egin ahalko diogu lege arrotz eta gainontzeko oztopo guztiei.

oposiziotik

Lourdes Idoiaga -EAJ

**URTEBETE ATEZ ATEKO SISTEMA
EZARRI ZENETIK**

Uztailean urte bete egin zuen Atez-Ateko sistemak Oñatin. Besteak beste, 5. edukiontzi sistemaren eta birziklapenaren alde sinatu zuten 2.416 oñatiarren nahiaren aurka, eta sinadurei entzungor eginez, inposatu zen Atez-Atekoa Oñatin, eta geroztik, hainbat balorazio "triumfalista" irakurri ahal izan ditugu inposaketa defendatzen dutenen ahotik.

Sistemaren arrakasta argudiatzeko alderagarriak ez diren datuak konparatu dituzte. Emandako datuek ez dute oinarri ezta zorroztasun estatistikorik, hondakin sistema desberdinak ezarrita zeuden epeetako datuak alderatu baitituzte. Ez da zuzena esatea lehen gaika %24 bakarrik biltzen zela eta orain berriz %83. Inolaz ere ez dira alderagarriak datu horiek, izan ere, aurreko sistemak ez zuen ahalbidetzen organiko eta errefusa bananduta biltzea. Datuak alderatzeko beharrezkoa da zehaztasun estatistikoetan oinarritzea, informazioa manipulatu eta herritarrei iruzur egitea helburutzat ez badute behintzat.

[Herriarrek modu txalogarrian onartu dute inposatutako sistema, baina inbidiaz begiratzen dituzte inguruko herriak](#)

Baina datu estatistikoetatik haratago, garrantzitsuena da sistema honen atzean pertsonak daudela eta herritarrei entzun egin behar zaiela. Bilduk inposatutako sistemak eragin zuzena du pertsonengan eta esfortzu handia eskatzen die: asteko 7 egunak ordutegi, jaitsi beharreko hondakin edota kuboen menpe daude. Herriarrek modu txalogarrian onartu dute inposatutako sistema, baina inbidiaz begiratzen dituzte inguruko herriak.

Legazpi adibide hartuta, errealitateak 5. edukiontzia atez atekoa baino eraginkorragoa dela frogatu du. Arrasaten ere 5. edukiontzia ezarri dute eta Elgetan udal gobernuak herri kontsulta deitu du herritarrei hitz emateko. Oñatin aldiz, inposaketa gailendu da.


EAJ-PNVtik beti defendatu dugu gaikako bilketa eta birziklapena, ingurumenaren zaintzarekin arduratuta gaudelako baina Oñatin inposaketa izan da bide bakarra, ez dute beste aukerarik eman.

KONTZEJUPETIK

ARGITARATZAILEA Oñatiko Udala **ZUZENDARIA** Iñigo Arregi
PUBLIZITATEA Aratz Losada **DISEINUA ETA MAKETAZIOA** Aratz Losada
KOLABORATZAILEAK Jerardo Elortza **SAILAK**
Etxagok Ama Begira (Gaztelekua) **INPRIMATEGIA** Gertu
TIRADA 5.500 ale **LEGE GORDAILUA** SS-357/91

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa • 20560 -OÑATI

Tel.: 943 78 20 72 • Faxa: 943 78 22 53

Posta-e kontzejupetik@oinati.net • Publizitatea: 

publi@oinati.net



PRIBATUA VS PUBLIKOA

Duela aste batzuk jakin zen Jordi Puyol-ek bere aitak herentzian utzitako diru bat paradisu fiskal baten zeukala aspalditik. Hau ez da berria zoritxarrez, komunikabidetara jo besterik ez dago. Berehala atera ziren zenbait politikari, bere alderdikoak bereziki, hori arazo “pertsonala, pribatua eta familiakoa” zela esanez.

Zer den pribatua eta zer den publikoaren inguruan filosofiak eta filosofoek asko eztabaidatu dute azken bi mende hauetan zehar. Eztabaida luzea, sakona eta adostasunik gabekoa hain zuzen. Baina ez dago urruti joan beharrik gauza batzuk argi egon beharko liratekeela esateko. Bizpahiru adibide.

Dirua eta beste finantza aktiboak paradisu fiskaletan edukitzea –eta paradisu fiskalak existitzea ere banku sekretuaz baliatuz- ez da arazo edo aukeraketa pertsonala, ikuspegi liberalak esango lukeen bezala, are gutxiago hori egiten duena agintari politikoa bada. Zergak ez ordaintzeak eskubide publikoak urratzen ditu, gizarteak bere giza beharrak bete ditzan



Luis Guridi



Administrazioen, finantza sistemaren eta baita ere gizakion zenbait jarduera publikoki ezagunak izateak ez du gizabanakoaren askatasuna murrizten

beharrezkoak diren baliabideak eskuratzea oztopatuz.

Etxe barruan gertatzen den guztia ere ez da pertsonala soilik, etxe barrukoa, familia tarteko zerbait. Biolentzia fisikoa eta tratu txarrak adibidez, ez dira zerbait pribatua, giza eskubideen aurka doan zerbait baizik, eta beraz publikoa edota politikoa, feminismoak azken urte hauetan azaleratu eta azpimarratu duen bezala.

Sarritan erabiltzen da pribatua izatearen aitzakia onartezinak diren portaerak justifikatzeko. Zorionez, gardentasunaren aldeko gizarte presioa gero eta handiagoa bihurtzen ari da eta horrela izan behar du. Administrazioen, finantza sistemaren eta baita ere gizakion zenbait jarduera publikoki ezagunak izateak ez du gizabanakoaren askatasuna murrizten. Komenigarria izango litzateke akaso erakunde, instituzio eta herritar guztion betebeharrak fiskalak herrikideen aurrean argitzea, mesede besterik ez lioke egingo, segur aski, gardentasunari eta gizarte beraren funtzionamenduari.

ETXERA BIDEAN

Uda amaiera, etxera bidean doa maleta eskuetan hartuta, norabide jakinik gabe eta nortasunik gabe. Etxearen, norberak sustraiak han erai dituenaren babesean, bere harrizko edo karezko egituretan erantsi izaten ditugu gure bizitzako erretratuak, gerora zer erakutsiko diguten otuz.

Urteen bidean, memoriaren zati bihurtzen dira gure etxeetan batzen ditugun argazki eta oroitzak. Etxeetan osatzen ditugu familiak, bertan eraiki ere, gure sentimenduak. Bertan hazten gara, heldu nahiz hil. Gure etxeetako hormek babesten gaituzte beldur eta fobietatik, mundu arrotzetik, gizarteak eragiten dizkigun zaurietatik.

Halaber, etxeak duen esanahia maiz ez da berbera izaten etxearen sustraiak, gerran dabilen herriaren baitan lurperatuak izan direnean. Eskuak odoletan bustiak dituen aita gajoak, bere eta bere familiaren etxea, bere bizia nola eraildu duten ikusten duenean... etxeak bere esanahi praktiko eta teorikoa galtzen du eta hura ere, arrotz bihurtzen da



Amaia Aranzeta



Etxeak duen esanahia maiz ez da berbera izaten etxearen sustraiak, gerran dabilen herriaren baitan lurperatuak izaten direnean

gerraren azalean.

Zoriontasuna, non gure etxea deritzogun hortan aurkitzen badugu, zer zorion gelditzen zaio bere etxea defendatu ere ezin duen aita horri? Gerra krudela da, batez ere, justifikatu gabekoa denean. Gerrak ez du esanahirik gizartearen; gerra soilik kontzeptu dialektiko bat da, gerraren objektuan batzen baita gizakion sufrimentua. Eta gizakiok gure sufrimentua ezeztatu nahi dugun heinean, gerrak sufrimendu hau indartzen du behin eta berriz. Okerragoa aldir, gerra genozidio hutsean bilakatzen denean; genozidioa, herri humilaren eraiketa, herri baten desagertaraztea bultzatzen duen gerra armatua eta justifikazio ezakoa, hori baita ankerra, lurrean, etxean, lekurik ez duena. Eta era berean tristea, eta erreala, Gazako irudiak ikusten ditudan bakoitzean sentitzen dudana.

Eta etxerik gabe geratu den aita horrekin gogoratzen naiz, etxera bidean baina, etxerik gabeko herrian hila izango dela.

ARRIZABALAGA
Aroztegia
Berezaio Ind. 10
Tel. 943 78 14 64

PAKITA
Aلتzariak
Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

BUNALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIKOA ENPOTRATUARIKO ALTZARIAK

IRAZOLA
Okindegia
Lorralde 6, 200, 44
Tel.: 943 78 25 97
Mug.: 688 630 754
ONAT

Baserriko ogia, egurrezko liburuak

EZAGUTU **MONDRAGONLINGUA**ren

hitz egiteko era berriak

Era berriak garai berrietarako, behar berrietarako, merkatu berrietarako, teknologia berrietarako...

4 ikaskuntza-metodo aurkezten ditugu, forma berrietara egokituta, zuri egokituta.



MATRIKULA ZAITEZ ORAIN!

eta munduko denbora guztia izango duzu. ml PLUS edo ml ADAPTA ikastaroan matriculezten diren kasleek SMARTWATCH bikaina jasoko dutelako



*Unaien 11 urte edo osatu den gutxiak agortu ari baliko du promozio horrek. Berez MATRIKULARENZAT.

Informa zaitez zure **MondragonLingua** zentroan
 Motxon kalea 7, **Oñati**. Tel: 943 71 60 00



Cambridge Exam Preparation Centre



Ellegaitza berrikuntza eta hobekuntza berrietan ditugu **"Kalitatearen Urrezko Q"** ikas-talarietako berrikuntza-zentro bakoari gaitu.



Europako zigilua atzerriko ikasleentzako irakaskuntza eta ikaskuntza berrietarako.



MONDRAGON taldeko ikasleentzako ikasle, eta irakasleentzako irakaskuntza eta irakaskuntza berrietarako 15. urteak. Mondragon ikasleentzako.



MONDRAGON UNIBERTSITATEAK Mondragon Lingua-aren ikasleentzako ikasleentzako gaitu gaitu gaitu.

% 85

Ikasleentzako ikasleentzako gaitu gaitu gaitu, % 85ek baino gehiagok Cambridgeko ikasleentzako gaitu gaitu gaitu.

matrikula zabalik

Irailak 15

mondragonLingua

'Ezetz da ezetz'

Eraso sexistak ekiditeko kanpaina jarriko du abian Udalak herriko jaiei begira



Jaietan, zoritxarrez, ugaritu egiten dira jarrera sexistak, uda honetan bertan Euskal Herriko hiri eta herri ezberdinetako jaietan ikusi ahal izan dugun moduan. Horiek ekiditeko asmoz Udaleko Berdintasun sailak hainbat ekimen jarriko ditu abian herriko jaiei begira.



► GOMENDIOAK eta TXILIBITUA 12-18 urte arteko neskeentzat

Goiko irudikoa bezalako kit bana emango die Udalak 12 eta 18 urte arteko herriko neska guztiei ikastetxeen bitartez. Kit barruan bi gauza aurkituko dituzte: batetik, eraso sexistak ekiditeko ideia eta gomendio sorta bat.

Bestetik, txilibitu bat ere jasoko dute kit barruan. Txilibitu hau arrisku edo larrialdi kasuetan erabiltzeko izango da; hau da, neska bat erasotuta sentitzen denean erabili ahal izango da, laguntza eskatzeko eta erasotzailea uxatzeko. Txilibitua arduraz erabiltzea eskatzen da, eragingarria izan dadin.

Iraileko bigarren astean, Udalarentzat lan egiten duten Denok Bat kale-heziketa zerbitzuko teknikariak herriko ikastetxe guztietatik pasako dira, DBH eta Batxilergoko neskei kit bana ematera, eta erasoaren aurrean nola jokatu behar duten azaltzera.

Aurrerago, ikasturtean zehar, herriko emakume gazteei zuzendutako autodefentsa eta ahalduntze ikastaro bat antolatuko du udaleko Berdintasun sailak herriko talde feministekin elkarlanean.

12-18 urte arteko neska guztiei kit bat banatuko die Udalak, erasoak ekiditeko aholkuekin eta larrialdietan erabiltzeko txilibitu batekin. Nahi duenak Gaztelekuan eta Denok Bat zerbitzuaren bulegoan (Bidebarrieta 14) izango ditu eskura kit-ak.

GARBIKETA ADMINISTRAZIOA ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkartearen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47
Oñati



PINTURAS URBIA MARGOAK

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

► Mutilei ere JARRERA AKTIBOA eskatuko zaie

Bereziki nesengan jarriko da arreta kanpaina honetan, baina mutilekin ere kontzientziazio lana egin nahi du udaleko Prebentzio sailak. Hala, 12-18 urte arteko mutilekin ere eraso sexisten gaia landuko dute ikasgelan, eta halako egoera baten aurrean zer egin edota nola joka daitekeen aztertuko dute. Erasoen aurkako jarrera aktiboa eta halako jokabideak gaitzesten dituztela erakustea eskatuko zaie.

Ilido horretan, gazteek erabiltzen dituzten sare sozialak baliatuko ditu Prebentzio sailak, kanpainaren mezua ahalik eta jende gehienarengana iristeko.



► Oñati, ERASO SEXISTARIK GABEKO herria

Gazteetara mugatu barik, herri osora ere zabaldu nahi da sentsibilizazio lana. Helburu horrekin, udaletxeko fatxada nagusian bi oihal erraldoi zintzilikatuko dituzte 'Ezetz da ezetz!' leloarekin jaiek dirauten bitartean.

Horrez gain, herriko festa guneean formato handiko kartelak ipiniko dituzte, emakumeenganako eraso-jokabideak salatuz. Gogoratu, eraso ez dela bakarrik baimendu gabeko ikutuak egitea; hitzez eta keinuz ere erasotu daiteke.

Azken batean, herritar guztien inplikazioa eta jarrera aktiboa bultzatu nahi da, Oñati eraso sexistarik gabeko herria izan dadin.

MUTILENTZAKO ETA NESKENTZAKO KONDOIAK

'Babesak ez du sexurik bereizten' lelopean, Udalak preserbatibaoak jarriko ditu gazteen eskura txosna gunean eta gazte giroko tabernetan.

Aurten, gainera, mutilentzako kondoiak ez ezik, neskentzako ere egongo dira, berritasun moduan.



TXAPAK

Emakumeen Biraren harira udalak berdintasunaren alde atera zuen txapa edo paparrekoak ere herritarren eskura egongo dira txosna gunean eta gazte giroko tabernetan



ERASOEN AURREKO PROTOKOLOA

laz bezala, emakumeenganako erasoen aurrean jarraitu beharreko protokolo edo gida moduko bat banatuko du Udalak herriko tabernarien artean.

Horrekin batera, tabenak emakumeentzako espazio libreak direla eta jarrera matxistarik ez dela onartzen ohartarazten duten kartel eta pegatinak ere banatuko ditu Udalak herriko tabernetan.



Era guztietako **GELTSERITZA** eta **OBRAK** egiten ditugu:

- > FATXADAK
- > TERRAZAK
- > ESTALKIAK
- > IMPERMEABILIZAZIO
- > ERREHABILITAZIOAK
- > IGOGAILUAK
- > BASERRIAK









Intenbide onenak isolamendu termikoko sistemetan (SATC).

kuber@kuber.es Tfno. 943 73 35 73 | www.kuber.es

San Martin eta Olakua auzoak lotzeko ibilbidea egokituko du Udalak Olapoton barrena



Natur Eskolako zubitik abiatuko da ibilbidea

Olakua eta San Martin elkarrengandik oso gertu daude Olapotoko parketik joanez gero, baina oso jende gutxi erabiltzen du gaur egun bide hori. Horregatik, San Martinen gero eta jende gehiago bizi dela kontuan hartuz, Olapotoko parkean oinezkoentzako ibilbide bat egokitzea erabaki du Udalak, Natur Eskola inguruan hasi eta San Martingo etxalderaino 450 metroko ibilbidea.

Ez da obra handirik egingo. Olapotoko basoa zeharkatzen duen antxiñako bide nagusia aprobetxatuko da zatirik handienez, eta 1,5 metroko zabalerako ormigoizko bidexka egokituko da. Parkearen behealdean bi bihurgune egokituko dira, pendiza arintzeko.

Egaralurrek egingo ditu lanak eta hil honetan bertan hasiko dira.

San Martingo Plan Partziala aldatzea onartu du udalbatzak

San Martingo etxaldeko plan partziala behin betiko izaeraz aldatzea onartu zuen udalbatzak uztaileko osoko bilkuran. Udalak enpresa eraikitzaileekin adostutako aldaketaren arabera, San Martin gunean eraikitzeko falta ziren merkatu libreko 83 etxebizitzetako ordez 132 eraiki ahal izango dituzte (49 gehiago), baina azalera txikiagokoak (75m² ingurukoak, 120m²-koak izan beharrean), eta, horrenbestez, hasierako planak jasotzen zuten eraikigarritasun osoa (12.195m²) aldatu barik.

Aldaketa hori onartzeko, Udalak hainbat baldintza ezarri ditu. Hala, eraikiko diren 132 etxebizitzek prezio mugatua (BOEx1,7) izango dute (220 mila euro inguru). Gainera, enpresa sustatzaileek konpromisoa hartu dute irailerako 4-5-6-7 eta 8 zenbakietako urbanizazioa prest uzteko eta A4 eraikineko fatxada urtebeteko epean amaitzeko. Era berean, urte amaierarako autokarabanentzako aparkalekua amaituko dutela ziurtatu dute.

Ez du legedia betetzen EAJren ustez

EAJren udal taldea plan partzialaren aldaketaren aurka azaldu zen, ez duelako legea betetzen, jeltzaleen ustez. Aplikatu beharrekoa den 1994ko lurzoru legeak dioena betez, EAJk uste du San Martinen eraikiko diren 49 etxe berrietatik 32 (%65) babes ofizialekoak izan behar direla (129.352 euroko salneurrikoak) eta gainerako 100 etxebizitzak tasatuak (batz bestek 220 mila eurokoak). "Proposamen honekin, legedia betetzeaz gain San Martinen babes ofizialeko etxebizitza bat erosteko aukera izango luketen 32 familiek 90.000 euro aurreztu ahal izango zituzten" jeltzaleek diotenez. "Bilduk onartutako aldaketaren arabera, metro karratu bakoitzaren prezioa 2.975€-koa izango da, hau da, ezaugarri berdineko etxebizitza libreek merkatuan duten prezioaren parekoa".

Bilduk ez zuen onartu EAJk aurkeztutako alegazioa. Gobernu taldearen ustez, eraikigarritasun osoa aldatu ezean ez da estandar kopuru berriak aplikatu behar, babes ofizialeko etxebizitzetara dagokienez. "Aspaldian geldi zegoen urbanizazioa aurrera ateratzea izan da gure helburua, etxebizitzetara ezaugarriak gaur egungo eskari eta beharretara egokitzuz, bai tamainaz eta bai neurriaz ere" adierazi zuen Mikel Biain alkateak. "Ez da erraza izan akordioa iristea, baina arduraz jokatu dugu eta hitzarmen on bat lortu dugu, San Martingo bizilagunen eta, oro har, oñatiar guztien mesedetan. EAJk defendatzen duen proposamenarekin akordioa ezinezkoa litzateke, eta berdin jarraituko genuke aurrera egin ezinik".

Hondakinen Informazio bulegoa Olakua auzoan

Olakua, San Lorenzo eta Ugarkaldeko bizilagunei zerbitzua gerturatzeko asmoz, Hondakinen Informazio Bulegoa Olakuako dorrean egongo da hileko lehen eta hirugarren astelehenean: goizez(10:00-13:00) eta arratsaldean (16:00-19:00). Apurtutako ontziak aldatu edota poltsa konpostagarriak erosteko aukera egongo da bertan. Egun horietan (*egunak zehaztu?) Kale Zaharreko bulegoa itxita egongo da.

Ramon Irizarreko plaza berritzeko lanak irailan

Irailan hasiko dira Ramon Irizar kaleko plaza berritzeko lanak. Ekaineko zenbakian aurreratu genuen moduan, zoru guztia altxatu eta berritu egingo da, granitozko adokinak eta hormigoia konbinatuz. Horrez gain, gaur egun parkearen erdian dagoen jolas-lekua kendu egingo da, eta plazaren erdian pasabidea egokituko da, aldamenetan berdeguneak eta jarlekuak dituelarik. Lanak bi hilabetez luzatuko dira, eta Ugarte eraikuntza enpresak egingo ditu 115.577€-tan (BEZ kanpo).



Parkeak izango duen itxura berria

AISIALDIKO BEGIRALE TITULUA

Oñatin eta euskaraz

“Haur eta gazteen Aisialdirako Begiralea” Eusko Jaurlaritzak homologatutako titulu ofiziala Oñatin bertan eta euskaraz eskuratzeko aukera eskaintzen dizu Oñatiko Udalak.

- ▶ Parte hartu ahal izateko baldintza: 18 urte beteta edukitzea atal teorikoa amaitu aurretik.
- ▶ Noiz: Larunbatetan. Datak zehaztu barik daude, baina urrian hasi eta martxora arte luzatuko da ikastaroa. Guztira 200 ordu teoriko.
- ▶ Ordutegia: 9:00-14:00 / 15:00-18:00
- ▶ Asteburu osoak: Ikastaroan zehar asteburu osoko hiru saio egongo dira. Datak zehaztu gabe daude oraindik.
- ▶ Plaza mugatuak. Oñatiarrek izango dute lehentasuna izena ematerako garaian. Izena emateko epea **irailaren 26an** amaitzen da.
- ▶ Matrikularen prezioa: 500 €.

UDALAREN DIRULAGUNTZA

Udalak diruz lagundutako ikastaroa izango da. Langabetu edo ikasle direnei matrikularen %75 ordainduko die, eta gainontzekoei matrikularen %50. Dirulaguntza eskuratzeko bete beharreko baldintzak hauek dira: Oñatin errolatuta egotea, %90eko asistentzia izatea, eta eskolen aprobetxamendu ona edo titulua eskuratzea.

INFORMAZIO BILERA

Ikastaroaren inguruko informazioa emateko bilera irekia egingo da irailaren 11n (18:30) erabilera anitzeko gelan (Bidebarrieta 22)



BERBALAGUNA

Euskarako mintzapraktika taldeetan parte hartzeko izen-ematea zabalik

Udaleko Euskara sailak eta Euskaltegiak elkarlanean ‘Berbalaguna’ izeneko ekimena jarriko dute abian ikasturte berriarekin batera.

Euskara ikasten ari direnek praktikatzeko aukera izatea da Berbalaguna ekimenaren helburua. Horretarako, berba-talde txikiak (4-5 lagunekoa) antolatzen dira, euskara praktikatu nahi duten pertsonak eta euskaraz berba egiteko ohitura dutenak elkartuz.

Beraz, modu batera edo bestera Berbalaguna ekimenean parte hartu nahi baduzue, deitu udal euskaltegira (943782496) irailaren 19a baino lehen. Bestela, euskara@oinati.net (Udaleko Euskara zerbitzua) helbidean ere eska daiteke informazioa.

Erosketa bonoen kanpaina irailaren 30era arte luzatuko da

Saltoki txikiei laguntzeko asmoz Debagoieneko mankomunitateak abian jarritako erosketa bonoen kanpaina irailera arte luzatuko da. Gogoratu, 25 euroko balioa duten bonoak 20 euroren truke eskuratu ahal ditugula udaletxean. Oñatin 27 komertziok egin dute bat kanpainarekin.

PRESTAKUNTZA IKASTAROAK

“ZAINZA” eta “INFORMATIKA” ikastaroak antolatuko ditu udalak

Pertsona edadetuen edota menpekoen zaintza arloko formazio ikastaroa antolatu du Udalak, kontuan hartuta laister beharrezkoa izango dela profesional ziurtagiria sektorean lana egiteko. Irailean hasiko da ikastaroa eta 120 orduko iraupena izango du. Arrasateko Bastida akademian izango dira eskolak, eta parte hartzen dutenei bidaia gastuak ordainduko dizkie Udalak. Informazioa eta izen-ematea udal Sozioekonomia sailean (Bidebarrieta 12 / 943037700)

INFORMATIKA IKASTAROAK

Langabetuei zuzendutako informatika ikastaroak ere antolatu ditu Udalak Ikas Hiru akademiarekin elkarlanean. Ofimatika arloko (Word, Excell, Access...) hiru maila eta Google Tresnak plataformako aplikazio ezberdinak (‘Outlook, OneNote, Evernote’ eta ‘Ofimatika hodeian’) landuko dira. 30 orduko ikastaroak izango dira. Irailean hasita txanda ezberdinetan emango dira urtea amaitu bitartean. Informazioa eta izen-ematea Ikas Hiru akademian (Bidebarrieta 5/943783103) edo udaleko Sozioekonomia departamentuan (Bidebarrieta 12 /943037700).



Carmelo Pérez de Almaraz
Almaraz
Inmobiliari Gestioa
Tel: 679411444
www.almaraz.info

“Gure bezemena eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabilioi bat saldu edo alokatu nahi baduzu, dei diezaguzu”.

Webgune berriak!!

AGURTZANE

ileapaindegia

Ondo pasatu jaketean!!

Euskadi Etorbidea 8 • Tel.: 943 53 45 44



ARAOTZEKO LEUZARREAN AUZOLANEAN

**Kontrolik gabeko
zabortege zahar
bat garbitzen
jardun dute
Oñati Zero Zabor
taldekoek**

Pasa den uztailaren lehenengo astean Oñatiko Zero Zabor taldeak eta udalak "Zero Zabor Astea" antolatu genuen elkarlanean. Bertan, zenbait ekitaldi burutu ziren herritarren artean hondakinen eta zaborren inguruko kontzientzia eta jakintza zabaltzeko asmoarekin. Asteari amaiera emateko, kontrolik gabeko zabortege zahar bat garbitzeko auzolana antolatu genuen. Deialdia uztailak 6rako (igandea) izan zen, eta horrela, goizeko 9etan lanari ekiteko prest 25 lagun inguru elkartu ginen herriko plazan.

Kotxetan antolatu ondoren abiatu ginen garbiketa egingo genuen ingurura, Leuzarra izeneko paraje eder eta malkartsura hain zuzen ere. Zabortegea, Urtiagainetik Araotzera doan errepideak harkaitz handi bat erdibitzen duen lekutik ("Trintxera Haundi" deitzen diote araoztarrek) Artia errekarainoko malda handian dago. Bertan sortu da errepidetik botatako zaborrekin garbitzeko asmoa dugun kontrolik gabeko zabortegea.

LEUZARRA EREMUA

Leuzarra leku-izena berriz, bizkar-eremu oso zabal bat izendatzeko erabiltzen da, Zapatako pinuditik Artia errekaraino doan malda handi zabala hain zuzen ere. Garbitu beharreko zabortegea leku zailean dago, malda handi batean eta sasiz beterik. Bestalde, zaborra jasotzeko errepideraino 10m inguruko horma bertikala gainditu behar da.

Oñatiarren zaborrak Urrutxuko zabortegeira eta labe errauslera eramán aurretik, Leuzarrako paraje honetan botatzen omen zituzten. Gerora, zenbait herritarrek bertan zaborra botatzeko ohiturarekin jarraitu zuten

Zailtasun hauek gainditzeko aurreko egunetan prestaketa lan batzuk burutu genituen garbiketa egunean dena prest egon zedin. Lehenengo bidezidor bat garbitu genuen lantaldeko kideak zabortegeira heltzeko. Era beran,

horizontalean tinkatutako soka luze batetik hiru polea kokatu genituen zabortegetik errepidera zaborra ateratzeko.

Goizeko hamarretarako lanean hasita geunden; lantaldeak antolatu, eta lagun batzuk zaborra jasotzera jaitsi ziren (5-6 lagun polea bakoitzeko) eta errepidean sokari tira eginda jasotzeko beste hiru lagun polea bakoitzeko.

Lanari ekin genion eta berehala konturatu ginen uste baino zabor gehiago zegoela. Urteetan pilotutako zaborrak eremu zabala betetzen du, eta zenbait tokitan zabor-pilaketak metro pasako lodiera hartzen du. Etenik gabe zaborra jaso eta jaso ibili ginen: ehunka botila, metalezko ontziak, traste handiak, plastikozko ontziak eta jostailuak, oinetakoak, pilak, bateriak eta beste zenbait hondakin mota jaso genituen. Eguerdiko hamabiak aldera eten laburra egin genuen mokadutxoan jan eta zerbitu edateko. Momentu aproposa izan zen kontrol gabeko zabortege haiei buruz



25 lagun aritu ziren zabortegia garbitzen. Hiru polea jarri zituzten hondakinak errepidera ateratzeko



3000 kilo hondakin atera zituzten goiz beteko lanean, horietatik 450 kilo txatarra



hitz egiteko. Zenbat daude Oñatin? Non daude? Noiztik? Jendeak jarraitzen al du halakoetan zaborrik botatzen? Eta denon buruan zebilen galdera bat: zergatik dago hainbeste zabor Leuzarrako gunehonetan?

Bertakoa inguruko auzotarrek botatuko zaborra izango zela pentsatzen genuen gehienok, baina taldeko araoztarrek argitu zuten gure ezjakintasuna: oñatiarren zaborrak Urrutxuko zabortegira eta labe errauslera eramanez gero, herrian botatuko zaborra kamioi batek Leuzarrako paraje honetan botatzen omen zuen. Horrela, denboraldi batez makinatxo bat kamioikada-zabor bota zen paraje eder hau bat zikinduz. Ondorengo urteetan, zenbait herritarrek bertan zaborra botatzeko ohiturarekin jarraitu zuten, etxeko zaborra, traste handiak, hildako abereak... eta honela heldu gara gaur egungo egoerara.

HERRITARRAK KONTZIENTZIATU

Gure auzolanaren helburua egoera honi buelta ematea da; zaborra jasoz ingurua berreskuratzea, kontzientzia zabaltzea eta herritarrek zaborra horrelako tokietan botatzeko ohitura ezabatzea. Bestalde, herrian dauden kontrolrik gabeko zabortegiak identifikatu eta



Zaborra jaso eta ingurua berreskuratzeaz gain, herritarrek kontzientziatu eta horrelako tokietan zaborra botatzeko ohitura ezabatzea da auzolan honen helburua

hauek garbitzeko ahalegina egin beharko litzateke.

Egurdiko atsedendia amaituta eta indar berrituta berriro ekin genion lanari gogo biziz. Beste zabor mordoak bilduta, edukiontzia eta zaku handiak gainezka

zeudela, ordu biak aldera lana eten genuen. Gerora jakin dugu goiz hartan jasotako zabor kopurua 3.000 kilo izan dela, hauetatik 450 kilo txatarra.

Lanari amaiera bikaina emateko, Araotzeko elkartearen bazkari ederra prestatu ziguten auzotarrek, eta lagun giro ederrean egon ginen mahaiaren inguruan. Lerro hauetatik bertaratutako herritar guztiei eta bazkari goxoa prestatu zutenei eskerrak eman nahi dizkiegu. Bukatzeko, aipatu behar da oraindik zabor asko gelditzen dela Leuzarrako paraje eder horretan eta beste ekitaldi batzuk prestatu beharko direla ingurunea ahalik eta gehien garbitu eta berreskuratzeko.

Oñati Zero Zabor Taldea

■ ELKARRIZKETA / ANDER MANTEROLA

Debagoieneko Erakunde Sanitarioko euskara arduraduna

“ Osasun zerbitzuetara doazenean euskara erabiltzera animatu nahi ditut herritarrak. Guk uste baino profesional euskaldun gehiago dago”

Osakidetzak II. Euskara Plana (2013/2019) onartu du

Osakidetzak II. Euskara Plana (2013-2019) onartu berri du. Herritarren hizkuntza-eskubideak babesteko aurrerapausoak emateaz gain, paziente eta erabiltzaileekiko komunikazioa hobetzea da helburua, horixe baita kalitatezko zerbitzua eskaintzeko giltzarrietako bat. Osakidetzaren plan orokorraren barruan, Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuak (ESI) bere plan espezifikoak garatu du, gure eskualdeko errealitate soziolinguistikoa kontuan hartuz. Debagoieneko ESiko Euskara teknikari Ander Manterolarekin hitz egin dugu, esku artean dituzten egitasmo eta erronken inguruan.

Osakidetzaren II. Euskara Planaren barruan, Debagoieneko ESiak bere plan espezifikoak prestatu du, gure eskualdearen ezaugarri eta errealitate soziolinguistikoa kontuan hartuz, Zein dira helburuak?

Osakidetzaren I. Planak %71ko betetze maila izan zuen gure eskualdean. Urrats handia eman zen batez ere langileen ezagutza mailan. Baita irudi korporatiboa eta hizkuntza paisaiari dagokionean ere.

Beraz, gure abiapuntua ez da txarra; hemen, jende askok uste baino profesional euskaldun gehiago dago. Gauza asko dago oraindik egiteko, baina ibilbide bat eginda dago, zentzuz.

Datozen urteei begira,

erabilera areagotzea izango da erronka nagusia, bai paziente edo herritarrekiko arretan, eta baita profesionalen arteko jardunean ere. Gero eta zerbitzu gehiago eskaini nahi ditugu euskaraz.

Besteak beste, erabaki inportante bat hartu duzue: jubilatuko diren profesionalen lanpostuetan derrigortasun datak zehaztuko dituzue euskara maila egiaztatzeko. Zer esan nahi du horrek, eta zer lortu nahi duzue?

Une honetan 60 urtetik gorako langile asko daude Debagoieneko ESIan, eta erabaki da langile horiek jubilatuta ahala kontratatuko diren profesional berriek lanpostu horri dagokion

euskara maila izan beharko dutela.

Oso erabaki inportantea da hori; horrekin lortuko genuke, bost urte barru Debagoieneko ESiko langileen %64 euskaldunak izatea. Eta neurri horrekin jarraituz gero, 2023ra begira are urrats handiagoa eman ahal izango genuke.

Zoritxarrez, hor muga bat izaten dugu beti, eta zera da: profesional euskaldunak egotea. Lanpostua bete egin behar da, eta profesional euskaldunak ez badago zerrendetan... Espezialitate batzuetan zaila izaten da.

Beste ekimen garrantzitsu bat ere jarriko duzue abian: Euskara Zirkuitoak. Zer esan nahi du?



HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK

Jubilatuko diren langileen lanpostuei euskararen ezagutza egiaztatzeko derrigortasun data zehaztea erabaki da. Hala, bost urte barru langileen bi herenak euskaldunak izatea lortuko genuke

Euskaraz atendituak izan nahi duten herritarrentzat euskarazko ibilbide edo zirkuitoak egokitzea da





EUSKARAZKO ZIRKUITOAK

Urtea amaitu baino lehen euskarazko zirkuitoa jarriko dugu abian Urologia adarrean. Lehen arretatik espezialitaterainoko bidean euskaraz atendituak izateko aukera izango dute hala nahi dutenek

helburua; hau da, lehen arretatik hasi eta espezialitatera bitarteko bidean euskaraz artatuak izateko

aukera ematea, modu naturalean, eskabide berezirik egin behar izan gabe.

Hasteko, Urologia adarrean jarriko dugu era honetako zirkuito bat, Urologia arloko mendikuengandik sortutako ekimena izan baita. Urtea amaitu baino lehen prest egotea nahi dugu.

Gero, euskarazko zirkuito hauek beste espezialitate batzuetara zabaltzea izango da helburua

Historial klinikoak euskaraz jartzea izango litzateke beste urrats garrantzitsu bat. Ari al zarete horretan?

Hori ez dago gure esku. Horretarako Osakidetza programa informatiko osoa moldatu behar da. Legebiltzarrean izan zen duela gutxi horren inguruko eztabaida, eta urratsak ematen hastea adostu dute.

Eskualde mailan badugu dokumentazio arlo bat: ebakuntza bat egin aurreko baimen orriak, jarraibideak... Agiri asko dira, eta ari gara denak moldatzen, elebitan jartzen, euskarazkoa nabarmenduz, eta, ahal dela, euskara ulergarrian jartzen.

Osakidetza ari da urratsak ematen, eta oraindik ere asko eman beharko ditu, baina herritarrok ere badugu zeresanik, ezta?

Bai, eta oso inportantea gainera. Inportantea da herritarren aldetik eskaera areagotzea, horrek bultzatuko baitu barruko erabilera. Profesionalek ikusiko dute herritarrek euskaraz eskatzen dutela zerbitzua eta horrek indar handia du.

Osakidetzari eskatzen badiogu zerbitzua

Pediatra euskaldunik ez Oñatin

UEMAk (Udaleri Euskaldunen Mankomunitatea) salatu izan du, eta herritar askok ere bai, oñatiarren %85 euskalduna izanik ez dela onargarria bertako pediatra euskalduna ez izatea. Zergatik gertatzen da hori? Ba al dago konponbiderik?

Kontua da, ez dago pediatra nahikorik, Zaila da ulertzea, baina horixe da arazoa, ez besterik. Gure eskuetatik kanpo dagoen kontu bat da. Unibertsitateak ez du ematen pediatra nahikorik, eta ez galdetu niri zergatik. Arazo estruktural bat da, eta hori konpontzen ez den bitartean...

Dena den, esan behar da, Oñatin dauden bi pediatretako batek oraintxe atera duela euskara-perfila, eta bestea ikasten ari dela.

Gainerakoan, Oñatiko osasun zentroan dauden erizain guztiak dira euskaldunak, matrona edo emagina ere bai, eta administrazio guneko langile guztiek dakite euskaraz. Familia medikuen artean, zazpitik hiru dira euskara ez dakitenak.

euskalduntzea, baina gero ez badugu erabiltzen, maila sinbolikoan geratuko gara. Sinbolikotasunetik erabilera errealera pasa behar dugu. Egia da, beti ez dugula profesional euskalduna aurkituko, baina askotan bai. Debagoieneko ESiko profesionalen artean uste baino handiagoa da euskararen ezagutza, eta potentzialitate hori ez da aprobetxatzen.

Ildo horretan, hasi gara hitz egiten bailarako udalekin eta euskara taldeekin, eta denon artean kanpaina bat egin behar dugu herritarrek kontzientziatzeko eta euskara erabiltzeko osasun zerbitzuetan.

Halako euskara planek aurrera egiteko ezinbestekoa da zuzendaritza taldearen inplikazioa. Debagoieneko ESlan ba al duzue babesik?

Bai, Debagoieneko ESiko zuzendaritzaren inplikazio maila handia da. Adibidez, jubilatzen direnen lanpostuei derrigortasun data jartzeko

neurria, nik dakidala, ez da beste inon hartu. Horrez gain, euskara zerbitzua ere indartu du, besteak beste.

Beharbada, euskara plana ez da izango batzuk nahiko luketen bezain aurreratua, baina nahiko anbiziotsua da, eta hori ez da lortzen zuzendaritzaren babes barik. Kontrako eragileak ere egoten dira, eta jakin egin behar da hori guztia orekatzen.

Eta langileen artean zer nolako jarrera dago euskararekiko?

Salbuespenak salbuespen, oro har oso jarrera ona dago. Urologiako medikuek egindako proposamena hortxe dago. Familia mediku askok ere aldeko jarrera agertu dute euskarazko zirkuitoak jartzeko. Inork ez du kontrako jarrerarik agertu. Mir-en artean euskaldun asko dago, eta, inoiz, euskaraz ere egiten dituzte beraien arteko saio klinikoak.

ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnok: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK**

**LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK**



- Manikura eta Pedikurak
- Solariuma
- Gorputzeko Tratamenduak
- Aurpegiko Tratamenduak
- Depilazioa

San Lorenzo 4. behea | Tel. 943 78 08 86 | 20560 OÑATI
email/twitter: estetika.distira@gmail.com




IRAILAK 6, LARUNBATA
10:00 - 13:00
ETEOn
Bilera irekia.
Zure alea jartzea
garrantzitsua da

HERRITARREN TOPAKETA

Euskal preso eta iheslarien giza eskubideen alde Oñatin sare herritarra osatzeko deia egin dute irailaren 6rako



Siglak alde batera utzita, herritarren arteko hausnarketa partekatzea da topaketaren helburua



SARE

SARE ekimen ireki eta plurala aurkeztu zen Donostian iragan ekainaren 15ean. Herritar sare honek, konponbidearen eta preso eta iheslarien giza eskubideen aldeko lana egingo du. Sufrimenduaren atea behin betiko ixtearekin eta bake eta esperantzaren ateak irekitzearekin amesten duen herritar multzoaren espazioa da Sare.

Euskal preso eta iheslarien eskubideak behingoz errespetatuak izan daitezzen nahi dugun Oñatiarrontzat, egun garrantzitsua izango da irailaren 6a. Siglak alde batera utzita, herritarrek protagonismoa hartu eta pentsakera edo esparru ezberdinetako pertsonen artean topaketa bat egingo dugu ETEOn. Ahal bezain jende gehiena biltzea nahi dugu, bertan ideia edo hausnarketa ezberdinak partekatu eta esku artean daukagun erronkari nola aurre egin pentsatuko dugu denon artean.

Helburua argia da: dispersioarekin betiko bukatzea, gaixo larrien etxeratzea, bizi osorako zigorra ahalbidetzen duten legeak bertan behera uztea, 70 urtetik gorakoen nahiz zigorraren 3/4ak edo 2/3ak beteta dituztenen etxeratzea bezalako eskubideak errespetatu daitezzen lortzea da helburua. Adostasunetik abiatuta, ahal bezain herritarren sare anitz eta jendetsuena osatu eta hauek aktibatuz, lortu dezakegula uste dugu. Ez da posible konponbiderako prozesu batean "irtenbiderik" ez ematea 600 preso eta iheslariri. Beraz euskal preso eta iheslari guztien etxerako bidea ahalbidetuko duen sarea ehuntzera animatzen zaituztegu lerro hauetatik. Irailaren 6an, goizeko 10:00etan, ETEO zaharrean daukagu zita.

**Sufrimenduaren atea behin betiko
ixtearekin eta bake eta esperantzaren
ateak irekitzearekin amesten duen
herritar multzoaren espazioa da Sare**

HARITZA

- Paperdenda
- Liburudenda
- Lotea
- Opariak

Kale Zalatza, 4
Tfnoa: 78 23 96

BATUAK S.A.

**MEKANIZATU ETA KONPONKETAK OROKORREAN
TORNO ETA FRESADORAK, ZENBAKIZKO KONTROLA**

Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tfnoa: 943 78 11 15 • Faxa: 943 71 82 50

Saharako lurralde okupatutik kanporatu egin dituzte Etxeberria eta Zurutuza oñatiarrak

► Askapenako brigadista talde batekin joanak ziren saharar erresistentziako eragileekin elkartzeko asmoz

Xabi Etxeberria eta Ekiñe Zurutuza gazte oñatiarrak, eta Askapena elkarteko beste lau brigadista, Saharako lurralde okupatutik kanporatu ditu Marokoko polizia. Abuztuaren 25ean gertatu zen hori, sei euskal gazteak Saharako mendebaldeko Aaiun hirira sartzea zihoazela. Hiriko sarrerako kontrolean autobusetik jeitsiarazi, taxi batean sartu eta Marokoko Agadir hirira eraman zituzten.

Aaiun hirian konzentratzen dira saharar erresistentziako mugimenduak. Hauekin bildu eta okupaziopean bizi duten errealitatea bertatik bertara ezagutzea zen euskal brigadisten asmoa. "Askotan, badirudi, ideia erromantiko samar bat dugula Tindouf-eko errefuxiatu kanpamenduen inguruan; laguntza humanitarioa bidaltzen diegu eta abar. Baina lurralde okupatuan bizi duten errealitatea oso bestelakoa da. Hara ez da laguntzarik iristen, eta erregimen gogor baten menpe bizi dira. Saharar nortasunaren ikur guztiak daude debekatuta, eskubide politikoak guztiz ukatuta... Egoera horretan nola bizi diren eta nola antolatzen diren ezagutu nahi genuen" adierazi digu Etxeberriak Marokotik.

TURISTA GISA

Abuztuaren 15ean abiatu zen Euskal Herriatik Askapenako brigada. Bazekiten zaila izango zela Aaiunera iristea, aste batzuk lehenago beste sei kide ere kanporatuak izan zirelako. Askapenak lau urte darama Saharako lurralde okupatura brigadak antolatzen, eta orain arte lortu izan dute Aaiunera



Xabier Etxeberria eta Ekiñe Zurutuza

1a 40 urteko okupazioa

1975era arte Espainiako kolonia izandakoa, orduz geroztik Marokoko erregimen gogorraren menpe dago Mendebaldeko Sahara, eta etengabeko errepresioa eta eskubide urraketa jasan behar izaten dute Marokok ezarritako asimilazio politika onartzen ez duten herritarrek.

Nazio Batuen Erakundearen onespenerekin, 1991n hitzartu zen erreferenduma egitea aldarrikatzen du Saharako herriak, baina gobernu marokotarra prozesua blokeatzen ari da; denbora irabazi nahi du, lurralde okupatua kolonoz betezen duen bitartean.

1975etik hona 600dik gora dira desagertutako saharatarrak, eta une honetan 62 preso politiko daude Marokoko espetxeetan. Ageriko errepresio honetaz gain, errepresio intelektuala eta kulturala ere inposatzen ari da (Hassania hizkuntza sahararra debekatuta dago...) Saharar herriaren nortasuna ezabatzeke helburuarekin.

Bienbitartean, Marokok Saharako itsasoko nahiz lurreko ondasunak (fosfatoak, arrantza...) espoliatzen jarraitzen du, Europa eta Estatu Batuetako konpañiekin dituen itun komertzialei esker

sartzea, baina azken hilabete hauetan Marokok gogortu egin du blokeoa. Gogoratu, Amaiur alderdiko diputatu Onintza Enbeitari ere ukatu egin ziotela sarrera duela hilabete gutxi.

Horregatik, poliziarengan susmo txarrik ez eragiteko, aurreneko egunetan turista gisa ibili ziren diskrezio osoz Maroko eta Saharako herrietan zehar (Marrakech, Sidi Ifni, Dakhla...). Saharar lurralde

okupatura sartzearekin batera ikusi zuten presentzia poliziala nabarmen areagotzen dela: militarrek kalean, kontrolak, harresiak nonahi... Polizia gain-gainean zuten eguneko 24 orduetan, nahiz eta hondartza besterik ez zapaldu.

AAIUNERA BIDEAN

Hilaren 25ean, Dakhla-tik Aaiun hiriburura bidean jarri ziren, autobusez. Bidean zehar zazpi kontrol igaro zituzten, guztiak nahiko lasai, azkena izan ezik. "Hiriburuko sarrerara iritsi eta berehala somatu genuen zerbait arraroa gertatzen zela" azaldu digu Etxeberriak; "autobusetik jeitsiarazi gintuzten, eta kaleko erropez jantzitako 40 bat polizia genituen zain, nahiko aztoratuta, gure irudiak hartzen... Inolako argudiorik eman gabe, Aaiunera sartzerik ez genuela esan ziguten. Azalpenak eskatu genizkien, baina giroa gaiztotzen hasi zen eta, azkenean, taxi batean sartu eta Marokoko Agadir hirira eraman gintuzten. Ordurako zortzi ordu generamatzan autobusean, eta beste 700 kilometro egin behar izan genituen gabaz, modu txarrean".

Agadir-en ere gainean izan dute polizia uneoro; beraz, azken egunotan Marrakech-era joateko asmotan ziren, hiri handiagoo izanik, eta turista gehiago dagoenez, aukera izango zutelakoan eskubide zibil eta politikoen alde lan egiten duten eragileekin elkartzeko. Irailaren 4an dira Oñatira itzultzeokoak.

Sahara mendebaldean bizi duten egoerarekiko kezka adierazi digu Etxeberriak. "Palestinako egoera ezagunagoa zaigu, baina ezer gutxi dakigu Saharako herriaz. Lurralde okupatuko hiri guztiak harresiz inguratuta daude, eta militarren presentzia ikaragarria da; gerra baterako prestatzen ari direla ematen du. Okupazio diktatorial bat da, saharar herriaren nortasuna ezabatzea helburu duena. Gauzak aldatzen ez badira, ustezko bake egoera horrek eztanda egin dezakee".

HELDUEN ESKOLA

ikasturte berrirako prest



► 18 urtetik gorakoentzat

Helduen Eskola (Escuela Para Adultos) 18 urtetik gorako pertsoneri zuzendutako zerbitzua da. Kultura maila osatu eta sendotu, edota titulu bat (Bigarren Hezkuntzako Graduatua) eskuratu nahi duten pertsona guztiei dago irekia.

Urtea amaitu aurretik 18 urte beteta edukitzea da Helduen Eskolan parte hartu ahal izateko baldintza bakarra.

► Bigarren Hezkuntzako Graduatua (DBH titulua) ateratzeko aukera

Garai batean, EGBko Eskola Graduatua atera eta eskola uzten zuen jende askok 14 urterekin. Gaur egun, ordea, titulu horrek ez dauka lehengo baliorik. Gaur egun, Bigarren Hezkuntzako Graduatua titulua (DBHko titulua) da beharrezkoa Erdi edo Goi mailako formazio ziklo bat ikasi ahal izateko. Eta enpresek ere titulu hori eskatzen dute, gutxienez.

Helduen Eskolak DBH titulua lortzeko aukera eskaintzen du, ikasturte batean, edo, gehienez, bitan.

Ildo horretan, Goi mailako formazio ziklo bat ikasi ahal izateko egin behar den azterketa prestatzeko klaseak ere ematen dituzte Helduen Eskolan.

► Oinarrizko informatika eta hizkuntzak

Gaur egun informatikako oinarrizko ezagutza bat ez duten pertsonak analfabeto funtzionalak direla esan

daiteke. Horregatik, bere garaian eskolan informatika eta hizkuntzak ikasteko aukera izan ez zuten gizon-emakumeek oinarrizko formazioa jasotzeko aukera dute Helduen Eskolan.

Oñatin Informatika (Windows, Word, posta elektronikoa...) eta Ingelesko oinarrizko formazioa jasotzeko aukera dago. Bergarako zentroan frantsesa ere eskaintzen dute.

► Oinarrizko ezagutza

Bere garaian arrazoi bategatik edo bestegatik eskolara joateko aukerarik izan ez zuten gizon-emakumeek irakurtzen, idazten eta matematikako oinarrizko ariketak egiten ikasteko aukera dute Helduen Eskolan.

Bestalde, gure artean gero eta ugariagoak diren etorkinek gaztelania eta oinarrizko euskara ikasteko aukera ere badute.

► Ez eduki adinaren beldurrik

Inoiz ez da berandu ikasteko, eta adinak ez du muga izan behar. Hain zuzen ere, 40 urtetik gorako pertsonak lortu ohi dituzte emaitza onenak, interes eta gogo gehien izaten dutelako. Beraz, animo, eta ez izan adinaren beldurrik ikasteko.

► Dohaineko irakaskuntza

Helduen eskola doan da. Ikasleek 24€ ordaindu behar dute bakarrik, urte osoan zehar erabiliko duten materialaren truke. Eskolak arratsaldean izaten dira. Ikasturte berriko ordutegiak iraillean zehaztuko dira.

2014 /15 IKASTURTEKO ESKAITZA

■ GAZTELANIA atzerritarrendako

■ EUSKARA atzerritarrendako

■ BIGARREN HEZKUNTZAKO GRADUATUA (DBH titulua) lortzeko ikastaroa

■ INFORMATIKA (oinarrizko maila): Windows, Word, posta elektronikoa...

■ INGELESA. Oinarrizko mailak.

BERGARAKO Helduen Eskolan beste ikastaro hauek ere eskaintzen dituzte:

■ Goi mailako ziklo formatiboak egin ahal izateko SARRERA-FROGA PRESTATZEKO ikastaroak.

■ OINARRIZKO HEZKUNTZA (idazten eta irakurtzen ikasi) eta sakontze mailak

■ FRANTSESA. Oinarrizko maila.



San Lorenzo auzoko Larraña institutuan ematen dira helduen heziketakoko eskolak

INFORMAZIOA ETA IZEN-EMATEA

■ Irailaren 2tik 12ra arte, Larraña institutoko 3. solairuan arratsaldean (16:00-20:00) Tel.: 943 78 35 77

■ Bestela, Bergarako egoitzan, goiz eta arratsaldean. Tel.: 943 76 44 52

■ **ESKOLAK** irailaren 15ean hasiko dira, ekainera arte. Eskola orduak arratsaldean izaten dira, 15:00etatik 20:00etara bitartean.

Gurasoentzako hitzaldi eta tailerrak

Udalak eta herriko ikastetxeek osatzen duten HEZKUNTZA MAHAIK 2014/15 ikasturterako gurasoentzako formazio saioak antolatu ditu

Duela bi urte eratu zen udaleko Hezkuntza Mahaia, herriko ikastetxeen arteko elkarlana sustatu eta guztien interesekoak diren gaiak elkarrekin joratzeko asmoz. Besteak beste, gurasoei zuzendutako formazio saioak antolatzen ditu eta, dagoeneko, prest dauka ikasturte berrirako hitzaldi sorta.

Gurasoentzako *coaching* tailerra antolatu dute hasteko. Iaz arrakasta handia izan zuen tailer honek. Gurasoek beren baitan dituzten gaitasunak garatu eta seme-alabekiko harremanetan aplikatzeko orientabideak eskaini ditu Virginia Espinek. Iraila amaieran egingo da izen ematea ikastetxeen bitartez.

Bestalde, aurreko bi ikasturteetan bezala, aurten ere Eskola Agenda prestatu du Hezkuntza mahaiak guraso elkarteekin batera. 6 eta 18 urte arteko neska-mutiko guztiei banatuko zaie.



Gazte Jardunaldiak Herrialde Katalanetan

Debagoieneko hainbat gazte Herrialde Katalanetara joango dira irailaren 10etik 14ra. Ernai gazte antolakundeak iaz hasitako 'Hazi, Hezi, Izan Independentzian' dinamikaren barruan, Sabadelleko Arran gazte antolakundeko militanteak izan ziren gure eskualdean, eta orain hara joateko gonbitea luzatu diete hemengo gazteei. Besteak beste, Diada eguneko ekitaldietan parte hartzeko eta Sabadelleko herri mugimenduaren egoera gertutik ezagutzeko aukera izango dute.

Arranon edo Gaztetxean eman daiteke izena. Bidaiaren kostua 50 eurokoa da, "baina dirua ez dadila ez joateko arrazoia izan; jarteko harremanetan gurekin" adierazi dute antolatzaileek. Informazio gehiago, haziheziizan@gmail.com helbidean.



M^a Angeles Barrena eta Nikolas Segurola omenduko dituzte Artzain Egunean

Irailaren 7an Legazpin ospatuko den Gipuzkoako Artzain Egunean Oñatiko bi artzain omenduko dituzte: Gesaltzako M^a Angeles Barrena eta Gomiztegiko Nikolas Segurola.

Arrikruz baserrian sortua, umetatik ezagutu zituen ardiak etxean M^a Angelesekin. Gesaltza baserriar ezkondata, oso gazterik alargundu zen, eta lan handia egin behar izan zuen artaldea (100 arditik gora) eta behiak gobernatzeko eta gazta egiten.

Matxinbentako Largarate baserrian sortua, ardi zain lanetan ibiltzen zen umetan Nikolas. Hamabi urte zituela iritsi zen Arantzazura, eta 1960az geroztik Gomiztegin bizi da, eta bertan dagoen artzain eskolaren bultzatzaile nagusietako bat izan da.



2014 / 15 IKASTURTEA

URRIA

- ▶ **'COACHING TAILERRA'** (Hasi berriak)
DATAK: urriak 13, 20 eta 27, eta azaroak 3, 10 eta 17.
HIZLARIA: Virginia Espin
HIZKUNTZA: Euskara
ADINA: HH-LH

AZAROA

- ▶ **'BERDINEN ARTEKO HARREMANAK'**
DATAK: azaroak 18
HIZLARIA: Etxadi
HIZKUNTZA: Euskara
ADINA: DBH

URTARRILA

- ▶ **'COACHING TAILERRA'** (Sakontze taldea)
DATAK: urtarrilak 19 eta 26, eta otsailak 2 eta 9
HIZLARIA: Virginia Espin
HIZKUNTZA: Euskara
ADINA: HH-LH

MARTXOA

- ▶ **'NERABEZAROAREKIN BATERA DATOZENAK: AGRESIBITATEA, TENTSIOA HARREMANETAN, KOMUNIKAZIO EZA, KONPLEXUAK...'**
DATAK: martxoak 3 eta 10
HIZLARIA: ADOS gabinetea
HIZKUNTZA: Gaztelera
ADINA: DBH

APIRILA

- ▶ **'BERDINEN ARTEKO HARREMANAK'**
DATAK: apirilak 21
HIZLARIA: Etxadi
HIZKUNTZA: Euskara
ADINA: LH

- ▶ **'NERABEAK ETA GIZARTE SAREK: MOBILAREN ERABILERA (NOMOFOBIA), LEGE ARRISKUAK...'**

DATAK: apirilak 28 eta maiatzak 5
HIZLARIA: Iratxe Esnaola
HIZKUNTZA: Euskara
ADINA: LH-6 /DBH

MAIATZA

- ▶ **'AUTOESTIMA ETA MOTIBAZIOA ZELA LANDU GURE SEME-ALABENGAN'**

DATAK: maiatzak 12
HIZLARIA: Norgara gabinetea
HIZKUNTZA: Euskara
ADINA: HH-LH-DBH

Matrikula aldia zabalik EUSKALTEGIAN

Oporraldiaren ostean ikasturte berriari ekiteko prest daude Bedita Larrakoetxea Udal Euskaltegian. Eskaintza zabala prestatu dute aurten ere, ondoko orriko taulan ikusten den moduan. Euskalduntze eta alfabetatze maila ezberdinak, titulu ofizialak (EGA eta administrazioko Hizkuntz Eskakizunak-1, 2, 3 eta 4) lortzeko ikastaroak, autoikaskuntza programak, ostalari eta etorkinei zuzendutako ikastaro bereziak, Oñatiko euskara lantzeko tailerrak...



Zure helburua edo gogoia edozein delarik ere, zure maila eta beharretara egokitzen den eskaintza aurkituko duzu bertan. Beraz, animo eta hurbildu euskaltegia informazioa eskatzera. Gogoratu, gainera, euskaltegian ikasitakoa praktikan jarri nahi dutenentzako BERBALAGUN taldeak ere badaudela.

Aurten ere, 350€ko saria zozketatuko du Udalak euskaltegian matrikulatzen direnen artean. Iraupen luzeko langabe-tuek ez dute matrikularik ordaindu behar.

ANTONIO LEON



Orain, jubilatuta nagoenez, denbora gehiago daukat eta euskara gehiago ikasteko ilusioa daukat

Pegalajar-ekoa (Jaén) sortzez, 12 urteko mutikoa zela iritsi zen Oñatira, eta 50 urte egin ditu gure artean Antoniok. Duela bi urte hasi zen euskaltegian. "Ulertu, asko ulertzen dut, baina hitz egitea zailagoa da. Garay fabrikari lankide euskaldunak izan nituen urte askotan eta, gainera, lan orduetatik kanpora baserriar askorekin egin izan dut lana, eta horri esker belarria egin dut. Orain, jubilatuta nagoenez, denbora gehiago daukat, eta euskara pittin bat gehiago ikasteko ilusioa daukat. Polita da bizi zaren herriko jendearekin eta bertako hizkuntzan komunikatzea. Nik, dagoeneko, neurea sentitzen dut euskara, eta uste dut denok egin behar dugula ahalegintxo bat"

PEGALAJAR
Bihotzeko Pegalajar!
Olio eta belar.
Zabal bezain mehar.
Egunero egiten dut zuregatik negar.
Zara urrea, zara zilar; gau eta egun zaitut behar.
Ene zain eta zuztar, beti gazte eta beti zahar.
Arimak egiten dit dar-dar!

MIGUEL ANGEL MONTOYA



Eskerrak eman nahi dizkiot Oñatiko herriari eta euskaltegiari

Kolonbiarra sortzez, duela zazpi urte iritsi zen Oñatira, aurretik etorria zen amarekin bat egitera. Bost urte dararama, gorabeherekin, euskara ikasten. "Oñatin jende gehienak euskaraz hitz egiten du eta nik ere ikasi nahi dut. Asko gustatzen zait euskaraz berba egitea. Dagoeneko ia dena ulertzen dut, baina hitz egitea zaila egiten zait oraindik. Gauza asko esan nahi dut, eta ezin izaten dut hitz edo aditz egokia aurkitu. Baina lortuko dut, poliki poliki. Jendearekin euskaraz hitz egiteko gai izatera iritsi nahi dut. Bide batez, aukera hau baliatu nahi dut eskerrak emateko, bihotzez, Oñatiko herriari, gure familia hain ondo hartu duelako, eta eskerrak, euskaltegiari, batez ere Robertori, nire bizitzako une atseginenak bizi izan ditudalako bertan. Oso gustura nago euskaltegian".

JOSE VIDAL

Euskara ikasi nahi nuke lagunekin hitz egiteko

Duela bi urte hasi zen Jose euskaltegiara joaten. "Pittin bat ikasi nahi dut, nire lagunekin euskaraz egin ahal izateko. Gero eta gehiago ulertzen dut, baina oraindik kostatzen zait berba egitea. Ahoskatzeko zailak gertatzen zaizkit hitz batzuk. Hala ere oso gustura nabil euskaltegian. Iaztik hona asko hobetu dudala ikusten dut eta jarraitzeko gogoz nago. Hasieran zaila da baina poliki poliki haria hartzen duzu, eta emaitzak ikusten dira".



DARIA EVANGELINA SALAZAR


Euskara jakinda lan aukerak zabalduko zaizkit

Argentinarra sortzez, orain dela zazpi urte iritsi zen Oñatira Eva, eta ia zoko urrian hasi zen euskara ikasten. "Zazpi urteko alaba daukat, euskaraz dakiena, eta berak animatu eta inspiratu nau gehien. Gainera, lan aukerak zabalduko zaizkit euskara jakinda. Oso interesgarria iruditzen zait euskara; asko gustatzen zait entzuten dudanean. Euskal Herria herri berezia da, bere hizkuntza maite duena, eta nik neuk ere egin nahi dut ahalegina. Oso gustura nago euskaltegian. Oso jatorrak dira".



ISIDRO SAN MIGEL**■ Euskaraz idazteko erraztasun pittin bat hartzeko helburuarekin hasi naiz euskaltegian**

Euskaldun zaharra da Isidro, baina eskolan ikasi gabea, bere adineko gehienak bezala. Orain jubilatuta dagoenez eta denbora libre gehiago daukanez, euskaltegian hastea erabaki du. "Euskaraz idazteko erraztasun pittin bat hartzeko helburuarekin hasi naiz euskaltegian. Urtarriletik ekainera arte ibili naiz, eta oso gustura nago. Ikasteko asko daukat oraindik, baina oinarri bat hartu dudala ikusten dut. Oso esperientzia ona izan da, eta negu partean jarraitzeko asmoa daukat. Gaur egun eskaintza eta aukera zabala dago euskaltegian eta, beraz, animatu egin nahi ditut herritarrak bertara etortzera; euskaldun zaharrok ere ikasteko asko daukagu euskararen erabilera txukunagoa egin ahal izateko".

JAIONE IGARTUA**■ Askotan ez ditugu ezagutzen dauzkagun baliabide publikoak. Euskaltegian eskaintza eta aukera izugarriak ditugu**

Euskaldun zaharra da Jaione, baina beste hizkuntza batzuetan ez bezala, euskaraz gure gaitasuna egiaztatu behar izaten dugunez, EGA titulua eskuratzeko helburuarekin jo zuen euskaltegira. "Behartuta hasi nintzen, baina oso esperientzia positiboa izan da. Askotan ez ditugu ezagutzen herrian ditugun baliabideak, eta konturatu naiz euskaltegian eskaintza eta aukera izugarriak dauzkagula. Oso gertukoa sentitu dut euskaltegia; ate guztiak zabalik aurkitu ditut, eta irakasle guztiak laguntzeko prest beti. Gainera, ikusi dut euskaldun zaharrok ere badaukagula zer ikasi. Animatu egiten ditut herritarrak euskaltegira hurbiltzera; maila eta behar guztietarako ikastaroak daude bertan".

IGOR KORTABARRIA**■ Nire lanpostuari dagokion 4. hizkuntz eskakizun maila ateratzera etorri naiz. Euskara maila eguneratzen lagundu dit**

Arrasateko udaletxean dihardu lanean eta bere lanpostuari dagokion 4. Hizkuntz Eskakizun maila lortzeko helburuarekin jo zuen Igorrek euskaltegira. "Unibertsitate arteko ikasketak euskaraz egin nituen, eta EGA agiria duela 25 bat urte atera nuen. Baina orduz gerotik oso gutxi idatzi izan dut euskaraz, eta idazteko era asko aldatu da ordutik hona, batez ere joskera edo estilo aldetik; orain esaldi motzak eta zuzenak hobesten dira, menpeko perpausarik gabe, ahal dela. Beraz, erdi derrigortuta hasi nintzen euskaltegian, baina nire euskara maila eguneratzeko balio izan dit. Beraz, alde horretatik ondo dago. Bestalde, ikusi dut 4. maila gaintzeko lan asko egin behar dela. Ikastaro nahikoa trinkoa da",



Euskaraz blai
Empápate de Euskera

EUSKALDUNTZE eta ALFABETATZE ikastaroak 1., 2., 3. eta 4. HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK (HOMOLOGATUAK) EGA
IKASTARO BEREZIAK: AISA, OSTALARITZA... ONATIKO EUSKARA EKINTZA OSAGARRIAK

AZTERKETA OFIZIALAK MAIATZEAN ETA IRAILEAN
Eskareri egokituako errento eta ordutegiak.

BEKA SISTEMA
Inapuri luzeko langabeteak diren. Informazio euskaltegian.

MATRIKULA EPEA
Irailaren 1etik 10ra

BULEGO ORDUTEGIA
Galze: 9:30-13:30 Arrabaldet: 10:00-18:00

Ohera: Matrikulazio orain zuzenean agingo da. Senduok matrikula daen. Matrikula on-line egin ahal izango da.

OÑATIERA LANTZEKO IKASTARUA

Oñatiera lantzeko lehenengo pausuak emango ditugu.

- **NOIZ:** Urriaren 10etik abenduaren 12ra
- **ORDU-KOPURUA:** 20. Bi orduko hamar saixo.
- **ORDUTEGIXA:** Arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara eta egubakoitzetan zurrenara.
- **PREZIUUA:** 28 €
- **MATRIKULA-EPIA:** Agorraren (iraila) 1etik 26ra. Oharra: Taldia egiteko 15 ikasle onartuko dira gehixenez.



Txantxiki izeneko famili elkarteak sortu dute seme-alaba txikiak dituzten hainbat gurasok. Elkarren arteko harremanak sendotu, beste familia batzuen esperientziez aberastu, eta haur nahiz gurasoentzako ekintzak (jolasak, eskulanak, hitzaldiak, ikastaroak, txangoak...) antolatzen dituzte. Udalak ETEO zaharrearantz utzitako lokalean dute egoitza, Eltzia proiektuaren barruan. Herri osoari zabalik dagoen ekimena da.

Nola sortzen da Txantxiki?

Laktantzia edo edoskitze talde bat sortzeko beharra ikusten zuten guraso gazte batzuen ekimenez sortu da Txantxiki famili elkarteak. Udalak ETEO zaharrearantz sortu nahi duen 'Eltzia' izeneko sormen eta herrigintza proiektuaren barruan sartzeko aukera zegoela ikusi zuten, eta lokal bat eskatu zuten bertan. Poliki poliki proiektua osatuz joan da, eta, azkenean, laktantzia talde izatetik, familia osoari zuzendutako proiektua bilakatu da, non era askotako ekintzak antolatuko dituzten, bai umeentzat, eta baita gurasoentzat ere.



Egoitza ETEO zaharrearantz

Udalak ETEO zaharrearantz utzitako gela handi batean du egoitza Txantxiki elkarteak. Bertako kide diren gurasoen artean atondu dute txokoa, auzolanean. Bi gune bereiztu dituzte: 0-2 urte arteko haurrentzako txokoa, eta 2 urtetik gorakoena. Hormak margotu, zorian tarimatxo bat jarri eta etxetik eramandako jostailu eta bestelako materialez jantzi dute txokoa. Jostailu gehiegi ere ez dute nahi; umeak jostailu artean utzi baino, nahiago dute haurren arteko harremanak sendotu, eta gurasoek haurrekin jolas egitea, sormena landuz betiere.

ZURICH
M^o del Mar Urrutia Negueruela
Mozkoi Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorts: 620 77 66 20

HARALD LINDER
ETXETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAK
PERSOANAK, LEBARRAK, LUZ PINTURTEAK, ARRIAK, PINTURRA LANAK...
GURE MAHATZAKIETAN ERABILTZEKOTZEHILEDA
HERRALDIA, HERRALDIAK eta ARRIETZEHILEDA
HARRA, 12.8.4. eta - 2003 ERABITZ - OPIJIKOAK
695 78 91 04 - 943 04 47 77

Aterpe bat baino gehiago. Harremanak eta esperientziak partekatzeko elkarte bizia

Txantxiki ez da eguraldi txarra egiten duenean haurrek jolasteko espazio bat bakarrik. Haurren eta gurasoen arteko harremanak sendotu, elkarren esperientziekin aberastu, eta guraso gazteek dituzten kezka eta beharrei erantzuteko hainbat ekintza (hitzaldiak, tailerrak, txangoak, jolasak, eskulanak...) antolatuko dituzte; batzuk elkartearen lokalean bertan izango dira, eta beste batzuk lokaletik kanpora. Gainera, ekintza gehienak herritar guztiei ierkiak izango dira, elkarteko kideek plaza guztiak betetzen ez badituzte.



<http://txantxiki.weebly.com/>
<https://www.facebook.com/txantxiki>

Funtzionatzeko modua

Gaur egun 30 bat familia biltzen ditu Txantxiki elkarteak. Denek dute lokaleko giltza, eta sei lantaldetan antolatuta daude: Zuzendaritza, Mantenua, 4D (espazioen eta jostailuen erabilera), Komunikazioa, Garbiketa eta Ekintza taldea. Beraiek kudeatzen dute lokala, eta, beraz, txokoaren mantenuaz eta garbiketaz ere arduratzen dira.

Horrez gain, Txantxiki elkarteak ETEOn sortzen ari den 'Eltzia' proiektuaren barruan dagoenez, espazio komuneko kudeaketan eta 'Eltzia' ekimenaren dinamikan parte hartzeko konpromisoa dute, gainerako taldeek bezalaxe.

Herri guztiari irekia

Haur txikiak dituen herriko edozein familia izan daiteke Txantxiki elkarteko kide. Sarrera kuota bat (50€) ordaindu behar da. Gero, urteroko egitasmoen eta diru-baliabideen arabera erabakiko dute urtean jarri beharreko kuota. Elkarteko kide egiteko edo informazio gehiago nahi izanez gero, jarri harremanetan elkarteko 'Harrera' taldekoekin txantxiki@gmail.com helbidera mezua bidalita.



Ume-eramileei buruz antolatutako tailerreko irudia.



Pottokalekura egindako irteerako irudia

IKASTAROA IRAILEAN

'Guraso/hezitzaile eta haurren elkar ulertzea: erlazioak eraikitzeko zigorra, xantaiak eta mehatxuak ekiditzen'

Txantxiki elkarteak antolatuta, bost eguneko ikastaroa egingo da irailaren zehar Nerea Mendizabalen eskutik. Psikopedagogo eta gizarte hezitzailea da Nerea, eta seme-alabekiko harremanetan zigorrak, xantaiak eta mehatxuak ekiditeko orientabideak eskainiko ditu.

EDOSKITZE TALDEA URRITIK AURRERA

Urritik aurrera edoskitze edo laktantzia taldea sortuko dute Txantxiki famili elkartearen Arantzazu Inza doula oñatiarraren laguntzarekin. txantxiki@gmail.com helbidean eman daiteke izena.

BESTELAKO EKINTZAK

Orain arte beste hainbat ekintza ere antolatu ditu Txantxiki famili elkarteak. Besteak beste, ume-eramileak eta telazko pixoiak berrerabilgarrien inguruko tailerrak antolatu dituzte, eta merendola bat ere egin zuten ETEO zaharreko Lagun-leku elkarte berrian, taldeko haur eta gurasoek elkar ezagutzeko. Aurrera begira, Eltzia proiektuaren barruan ETEO zaharrean dauden beste taldeekiko (Gurutze Gorria, Bertso Eskola, Acesma...) lankidetzan ekimen ezberdinak abian jartzeko asmoa ere badute.

ANE MERTZERIA

- Josteko zarak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Berrin, 54 DNATI

Cartonajes Arregui, S.A.

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
 Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

ELTZIA-REN OINARRIAK ZEHAZTUTA



► **ELTZIA** egitasmoko kideek ETEO zaharrea beharko dituzten espazioen antolaketa eta kudeaketa eredu definitu dira.

Amaitu da Eltzia-ren II. fasea. Eltzekideekin ZER eta NOLA nahi, behar eta ahal zuten eztabaidatu eta entzun ostean eraikinean zein gune antolatu eta kudeaketaren oinarriak zehaztu dira

Lan eta bateratze saio ugarian parte hartu dute 35 eragile eta 9 udal teknikarik. Iritzi eta ikuspuntu ezberdinak elkartu dira Eltzia-ren II. fa-

**Udalak
arkitekto talde
bati eskatuko
dio proiektua
idaztea.**

sean zehar. Baina emaitza onekin: zehaztu da Eltzekideek ZER eta NOLA nahi duten.

Hurrengo urratsa Udalak arkitekto talde bat kontratatu eta proiektuak eraikinarean lau hormen barruan xertatzea izango da.

Musika Eltzia-ren proiektu arkitektonikoa bideratuta dago, urgentziak arrazoiak medio. Irailetik aurrera martxan jartzea da helburua.

Kudeaketa partekatua izango du ELTZIAk

Udalak eraikinaren egiturazko gastuak hartuko ditu bere gain; eragileek berriz funtzionamenduari dagozkionak

Eltzia egitasmoa, Herri Sormenaren Etxea, kudeaketa eredu partekatuan oinarritzen dena, eraikin publikoak kudeaketa sozial bat. Orain arte eginiko saio eta bilerekin oinarri batzuk adostera iritsi bagara ere, kudeaketa eredu eta egiturari ibilbide osoa falta zaio oraindik. Laburbilduz esan daiteke, eraikinaren kudeaketa eragile publikoaren eginbeharra litzatekeela eta bertan garatzen den egitasmoa eragileena. Beti ere elkarlanean oinarritua, hartu eman zuzena sustatuz eta aliantza egitura moduan planteatuz.

Kudeaketako puntu ezberdinak hiruren artean banatuko lirateke:

Eltzia. Eltzia egitasmoan elkar bizi diren eragile eta norbanakoak

Udala. Erakunde publikoa, ordezkaritza tekniko zein politikoa

Koordinazio Batzordea. Bi eragileen elkarlan eremua (26. orrian jarraitzen du)



ARDURAK

■ Eltzia

Gastuak

Erabilera propiorako den ekipamendua taldeak ordainduko ditu

Mantenimentua

Erabilera txarraren ondorioz sortutako beharrak taldeak konponduko ditu

Garbiketa

Talde bakoitza darabilen espazioaren garbiketaz arduratuko da

■ Udala

Gastuak

Eraikinarekin zerikusia dituzten gastuak Udalaren erantzukizuna

Erabilera komuneko materiala

Mantenimentua

Estrukturazko gastuetaz arduratuko da

Garbiketa

Udalak urtean zehar bi garbiketa orokor egingo ditu

■ Koordinazio

Batzordea

Gastuak

Erabilera komuneko ekipamenduen kudeaketa

Mantenimentua

Erabilera komuneko diren mantenu lanak eta konponketak

Garbiketa

Hamabostean behin gune komuneko garbiketa

ETXEBIZITZA BERRIAK OÑATI ERDIAN

*Eraikin berria
bukatzear*

*Maiatzaren 1 Plaza,
2. zenbakian*

*3 logeletako
etxebizitza zabalak*

*Informazioa
eta Salmenta:*

Larrain S.L.

Tel.: 943 21 33 88

www.moyua.com

GRUPO **MOYUA**

Larrain
INMOBILIARIARTEA





DESKRIBAPENA: musika sormena helburu duten herritar musikarientzako espazioa. Musika Eltzia tamaina edo ekimen ezberdinak gauzatzeko aukera emango du, taldeka naiz bakarka. Gela ugari aurreikuspen dira bertan, kontutan izan behar baitugu herrian talde asko daudela musika munduan jarduten dutenak.

ERABILERA: entsegu eta es-

MUSIKA ELTZIA

perimentaziorako gunea izango da. **EZAUGARRIAK:** 19 gela txiki (2-3 musika talde sartzeko modukoak), bi gela handi (txaranga, batukada,...) eta grabazio estudio bat. Azken

hau udalak ekintzailetasuna sustatu asmoz lehiaketa publikora aterako luke honen kudeaketa.

Musika Eltziaen proiektu arkitektonikoa bideratuta dago, Eltzeko kide hauek zituzten urgentziatzko arrazoi batzuk tarteko, aurreratuen dagoen espazioa da. Irailetik aurrera obren gauzatzeko prozesua martxan jartzea da helburua.

ARETOA

Entsegu lokal handiak behar dira urteko garai konkretu batzuetan, ihauterik edo danborrada esaterako. Libre dagoen espazio urria kontutan hartuta ez da ikusten urte guztirako txoko bat kondentatzea, baina konponbidea aurkitu nahi zaio.

ERRESKATERAKO TALDEAREN GUNEA

Gurutze gorriak duen erreskate taldearen materiala gordetzeko eta konponketa lanetarako biltegia.


BILTEGIAK

Eltzekide guztiek dute biltegi beharrak. Batzuk egunerokotasunerako biltegiak behar dituzte beste batzuk berriz urtean behin erabiltzen dituzten materiala gordetzeko tokia.

Topagunea

DESKRIBAPENA: Espazio honen helburua eraikinean gora eta behera dabilen jendearen topagune izatea da, bilgunea, elkar ikusteko espazioa. Erabilgarria izan beharko litzateke egongela moduan ere.

ERABILERA: Topagune hau Eltzian egiten den lanaren erakusle izatea nahi da, bertan informazioa jasotzeko aukerara izan behar du. Sortzen diren ekintza eta lanak erakusteko espazioa.



Aretoa

DESKRIBAPENA: espazio irekia, tamaina eta areto egitura ezberdinak garatzeko aukera emango duena.

ERABILERA: hitzaldiak, asanbladak edo formazioa emateko gunea.

Bilera gelak

DESKRIBAPENA: tamaina ezberdinetako bulegoak aurrekusi behar dira, guztira 5-6 bilera gela. Kontutan izan behar dugu Eltzeko kide guztiak erabiliko dituztela, beraz oso tamaina ezberdinetako bilerak gauzatzeko aukera eman behar dute, 4 - 20 pertsona bitarteko bilerak.

HERRI MUGIMENDUEN ELTZIA

Bulegoak

DESKRIBAPENA: bulegoak, bilera gelen osagarriak izan behar dute. Lana egiteko guneak lirateke, maiz taldeek bileren prestaketarako edo lan administratiboa egiteko lan gune hauek behar dira.

ERABILERA: ohiko bulego moduan erabiltzeaz gain, gela hauek urtean zehar era puntual baten beste ekimen bat-

zuk gauzatzeko ere erabili ahalgo dira: izen emateak, informazio bulegoak, kontsulatu ibiltariak...

Dutxak eta aldagelak

DESKRIBAPENA: 3-4 dutxa behar dira proiektuan. Dutxak eta aldagelak gune berean kokatuak egon beharko lirateke.

Taberna eta sukaldea

DESKRIBAPENA: proiektu guztiari zerbitzua emango dion taberna bat izango litzateke, bilgunea izango dena. Taberna Eltzeko erabiltzaile guztiei zuzendua egongo da.

ERABILERA: kontsumo puntualerako gune izateaz gain, aukera eskaini beharko luke afari, txokolatada nahiz proiektuko beste edozein eragilek egin nahiko lukeen jai edo ospakizunen gune izateko ere.

Lehen arretarako gune


DESKRIBAPENA: osasun arazo nahiz istripuei arreta eskaintzeko gunea.

EZAUGARRIA: botikina eta esku ohea izango lukeen espazioa, beharrezkoa kontsideratzen bada desfribiladorea ere bertan egon beharko litzateke.

Garbiketa biltegia

DESKRIBAPENA: eraikin guztirako erabilgarriak izango den garbiketa materiala gordetzeko biltegia.

EZAUGARRIA: irisgarritasuna eta erabilgarritasuna kontutan hartuz kokatu beharko litzatekeen espazioa. Bertako materiala Eltzekide guztiek erabili beharko dutelako.



GORPUTZ ELTZIA

Aretoak

DESKRIBAPENA: Gorputz adierazpen anitzak gauzatu ahal izateko 3 gela aurreikusten dira, hauetarik baten neurria 200 metro karra-tu ingurukoa.


ERABILERA: 3 gune planteatzen dira, hauetarik 1 edo 2 beste erabilera batzuetarako zuzendu ahal izateko. Astelehenetik ostiralera, arratsalde, 3 gela hauetatik 2 behintzat une oro erabiliko direnez (Oñatz dantza taldeak), hirugarren

batek aukera eman beharko luke beste ekimen batzuk gauzatu ahal izateko.

Dantza taldearen entsegu leku izateaz gain, ikastaroak, tailerrak, norbanakoen entseguak edota antzerkia ere bertan kokatuko lirateke.

EZAUGARRIAK: lur berezia beharko litzateke, ahal izan ezker horretan ispilua eta dantzarako barra ere espazio guztian zehar egon beharko lirateke.

AUZO ELTZIA



Familien txokoa

Auzoko eta herriko familiek osatu duten elkarteak kudeaturiko espazioa. Familiak elkarrekin jolastu, ikasi eta esperimintatzeko aukera emango duen txokoa. Espazio irekia, moldagarria egin nahi diren ekintzen arabera, espazio ezberdinak izango dituen eta batez ere haur eta nagusiak lasai mugitu, etzan edo jolastu ahalko dutena.

Nagusien topagunea

Auzoko nagusiak adieraziriko beharizan bat oinarri harturik nagusientzako egokia izango den topagune bat aurreikusten da proiektuan. Espazio honek bilgune, jolasgune, topagune izan beharko litzateke.

Kafe bat hartu, kartetan jolastu, nahiz irakurketarako egokia izango dena. Topagune honek aukera eman beharko luke ere hitzaldiak, batzarrak nahiz mahai inguruak antolatzeke.

Tailerra


DESKRIBAPENA: espazio irekia, sormen lanak egin nahi dituen edozein herritarren material ezberdinen bidez bere txokotxoak jartzeko aukera eskainiko duena.

ERABILERAK: erabilera oso anitzak eskainiko litzuzke: eskultura, pintura, marrazketa, artisautza,...

Ikus entzunezkoen tailerra

DESKRIBAPENA: argazkilaritza, irudia, zinea,.... sormen lan hauetan ari diren aritu eta adituak erabiliko lukeen espazioa.

ERABILERAK: argazkiak atera, manipulatu edo bestelako lanak egiteko aukera eskaintzen duen gunea. Zinearekin zerikusia duten muntaia, grabaketa eta bestelakoak ere bertan egingo lirateke.



SORMEN ELTZIA

Tailer espezifikoak

DESKRIBAPENA: jarduera konkretuak garatu ahal izateko espazio erdi itxiak. Ez dira espazio itxiak aurreikusten, jendearen joan etorriak eta bertan egongo diren sortzaileen arteko hartu emana sustatu nahi

baita. Aukera eman behar du garai bakoitzean tailer espezifiko ezberdinak egiteko ERABILERAK: serigrafia, joskintza, artisautza tailerrak

Mugikortasun tailerra

DESKRIBAPENA: mugikortasun

sostengarriarekin zerikusia duten baliabideak zaindu, konpondu nahiz hobeto ezagutzeko aukera emango duten tailerra dugu honako hau.

ERABILERAK: mugikortasun sostengarriko erabilgarriak diren tramankuluen ezagutza, mantenimendua eta elkarbanatzea sustatuko duen espazioa dugu honako hau. Espazio hau bizikleta, patin, patinete eta horrelakoen konponketa eta erabilera sustapen tailerra izango da.

Bertso Eskola

DESKRIBAPENA: ikasketak eta esperimintazio eskola moduan funtzionatzen du, helburua herrian bertsojaritza sustatu eta bertsoaren kultura gizarteratzea delarik

ERABILERAK: bi gela beharko litzuzke beraien klaseak eman ahal izateko

Zer egin zebrabidean?

► Zebrabide eta espaloiak oinezkoentzat dira

Bizikletazale eta oinezkoen arteko elkarbizitza sustatu asmoz, hainbat bizikletazalek izan ohi duten jokabide dese-gokian jarri nahi izan dugu arreta oraingoan. Ildo horretan, argi eta garbi utzi behar da espaloi eta zebrabideetan oinezkoek dutela lehentasuna. Beraz, bai espaloietan eta baita zebrabideetan ere, bizikleta eskutan dutela ibili behar dute bizikleta-zaleek. Zebrabide ondoan bizi-kleten pasabidea dagoenean bakarrik pasa daiteke bizi-kletan.



Zebrabide ondoan bizikletentzako pasabidea egonez gero, bizikletan pasa daiteke. Bestea ez! oinez pasa behar da

< Munduan zehar >

Copenhagengo hirian, simple baina eraginkorrek diren txirrindularientzako ekipamendu desberdinak jartzen ari dira azkenaldian. Hirian zehar bizikletan mugitzen diren guztiei, beraien garraiobidean oztopo eta zailtasunik gabe mugitu daitezten, estrategikoki kokaturiko hainbat elementu dira.

Copenhage bizikletazaleentzat hiri erreferente bat da eta soluzio hauen bidez, hiriak bizikletari dion errespetua eta miresmena garbia da.

Adibidez, ondoko argazkian ikus daitezkeen bezala, bide-

Txirrindularientzako ekipamendu berezia Copenhagen



Hondakin kubo inklinatuaren adibidea

gorri sarean zehar, hondakinak botatzeko hainbat kubo inklinatu kokatu dituzte. Hauen helburua garbia da: bizikletan zoazenean gelditu gabe zaborra botatzeko aukera izatea, alegia.

Beste baliabide eraginkor bat, bidegurutzetan gelditzen zarenerako, egitura metalikoak jarri izana da. Goiko aldean eskua jarri eta behekaldean oina jartzeko aukera ematen duen plataforma simpleak dira. Barra hauen bitartez, hanka lurrean jarri gabe azkarra go irten zaitezke semafora berde jartzen denean, esaterako.

ALYUBE ZERBITZUAK

MAPFRE

Portu Kalea 5
20560 Gihati
Gipuzkoa

Tel.: 943 78 12 85
943 78 33 97
Faxa: 943 78 07 85

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inborta@telefonos.es



Izena: **Marilo Unzurrunzaga**

Ogibidea: **Jubilatua**

Zer da bizikleta zuretzat?

Herri barruan mugitzeko modu bat da, kotxea atera barik eta jendeari traba egin barik.

Zergatik eta zertarako erabiltzen duzu?

Olapoton bizi naiz, eta kiroldegira joateko erosi nuen bizikleta duela bi urte, aurre-jubilatu nintzenean. Gaur egun, erosketak egitera ere bizikletan joaten naiz, eta herri barruan gestio azkarren bat egin behar badut ere bai. Kotxea oso gutxitan erabiltzen dugu.

Ze abantaila ikusten dizkiozu?

Azkarra eta arina da, eta samurra erabiltzeko. Traba gutxiago egiten duzu, aparkatzeko arazorik ere ez daukazu... Abantaila asko ditu.

Zer egingo zenuke bizikletaren erabilera sustatzeko?

Niretzat ondo egongo lizateke Ugarkaldeko eta Lazarragako bidegorriak lotzea. Bizikletentzako aparkaleku gehiago jartzea era bai.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Ondo. Gero eta gauza gahiagotarako erabiltzen da. Lanera ere gero eta gehiago doaz bizikletaz, baita negu partean ere. Oñatin ez dago distantzia handirik, eta lanera joateko ibilgailu egokia da bizikleta.

Era guztietako bizikletak aurkitu daitezke

Fatbike: Bizikleta mota ezberdinen merkatua ezagutuz

Duela urte batzuk mendiko bizikletek egin zuten bezala, gaur egun, bizikletaren erabilera logikoa zena, goitik behera aldatzen ari da *FatBike* (bizikleta lodiak). Hori horrela, bizikletarik igaro ez diren tokiak, geroz eta urriagoak dira mundu osoan zear. Gurrpil oso zabalak dituzten bizikletak dira eta modan jartzen ari dira azkenaldian. Hondar sakonetan (basamortuan), elurretan, harri handietan eta bide basatietan ibiltzeko oso egokiak dira.

Feria ezberdinen joera ikusirik, bizikleta marka gehienak *FatBike* modelo bat dutela antzematen da. Marketing kontua izan ahal bada ere, tendentzia bilakatzera bidean dijoa.

Informazio gehiago: www.fat-bike.com



FatBike delako bizikleta oso egokia da elurretan ibiltzeko

Merkatua >

Kasko tolesgarria

Overade Plixi



Txirrindulariek kaskoa ez jazteko aitzakietako bat, gero non eraman ez dutela jakiten izaten da. *Overade Plixi* kaskoa, edozein tokitan gorde daiteke segurtasuna eta erosotasuna konpromezuan jarri gabe. Kaskoa tolestu eta zabaldu egiten baita era azkar eta erraz batean.

Bideoa:

<http://youtu.be/wGbhWqkYSHA>

Bideoa:

60€ inguru

caravanas  oñate



• **GALDARAGINTZA - CALDERERIA**
Ondut zuhaitzia, 25 • Tel.: 943 71 63 60

www.caravanasoonate.com

• **BIZIKLETAK**
• **ERREMOLKEAK**
• **TXIRRINDULARITZARAKO OSAGARRIAK**
Ondut zuhaitzia, 25 • Tel.: 943 71 63 60
Atreko kale, 32 (erakusketa)

■ **FUTBOLA.** Ohorezko Erregional Maila



Igor Serrano entrenatzailea, Unai Mendia laguntzailea, eta Jubeniletik igo diren jokalaria. Mikel Irizar falta da.

Irailaren 14an Azkoagainen ekingo dio Aloña Mendik Martutenen aurka

► **Irailaren 6an Laudioen aurka jokatu du Jose Luis Agirre memoria**

Azkoagainen ekingo dio liga txapelketari Aloña Mendik irailaren 14an (16:30). Aurretik ere izango da taldea ikusteko aukera, hilaren 6an (17:00) Jose Luis Agirrerren omenezkoa jokatu baitu Laudioen aurka.

Bada aurpegi berririk taldean. Horietako bat aulkian, Igor Serrano idiazabaldarra izango baita entrenatzailea. Idiazabal eta Ilintxa taldeak entrenatu izan ditu Ohorezko Mailan. Oso pozik dago Aloñak eman dion aukerarekin, eta oso gustura bertan aurkitu duen jokalaritza taldearekin.

Lau baja inportante (Iker Olalde, Iñigo Zubia, Aritz Garmendia eta Iñigo Idigoras) izango ditu iazko taldearekiko, eta gazte mailatik igo diren zazpi mutilekin (Gorka Irizar, Xabi Irizar, Asier Mantxola, Jon Ander Kortabarria, Joseba Larrea, Aritz Zabaleta eta Mikel Irizar) bete beharko ditu hutsuneak. Gazteengan konfiantza osoa duela esan digu, maila berrira egokitzeko denboratxo bat beharko duten arren. Etxekoak dira jokalaritza guztiak, eta mailari eustea izango da helburu nagusia. Iaz bosgarren amaitu zuen Aloñak.

■ **ESKUBALOIA**

Alaitz Lazkanoiturburu bikain aritu da Espainiako selekzioarekin Finlandian



Alaitz penaltia jaurtitzeko prest

Alaitz Lazkanoiturburu Aloña Mendiko jokalaritza gazteak Espainiako Infantil mailako selekzioarekin lagunarteko hiru partidu jokatzeko aukera izan zuen uztailako azken asteburuan Finlandian.

Aurretik Sorian egindako kontzentrazio batean parte hartu zuen Alaitzek, eta Dolores Martin hautatzaileak Finlandiara eraman zituen 16 jokalaritza zerrendan sartu zen oñatiarra.

Lagunarteko hiru partidu jokatu zituzten Finlandian selekzio ezberdinen aurka, eta hirurak irabazi. Alaitz oso maila onean aritu da; guztira sei gol sartu zituen eta, gainera, bigarren partiduko jokalaririk onena izendatu zuten.

■ **IGERIKETA**

Zapore gazi-gozoz itzuli da Nerea Diaz Espainiako txapelketatik



Bigarren urtez jarraian Espainiako Infantil mailako txapelketan parte hartu du Nerea Diaz Aloña Mendiko igerilariak. Uztailaren 24tik 27ra jokatu ziren Bartzelonan.

Sasoiko puntu onen iritsi zen baina ez zuen bere maila onena ematerik lortu. Ez dago ohituta 50 metroko igerilekura, eta, gainera, akats tekniko batzuk egin zituen irteera eta birajeetan, igerilariak berak aitortu duenez. Lau probatan (100 eta 200 Bizkar, eta 100 eta 50 Libre) parte hartu zuen. Hala ere, gaztea da oraindik Nerea, esperientzia bezala oso positiboa izan da ikasten jarraitzeko.

■ **MENDI IRTEERA - IRAILAK 13 ETA 14**

Monte Perdidor asteburuko irteera Aloña Mendirekin

Aloña Mendiko Mendi sailak asteburuko irteera antolatu du Piriniotara. Irailaren 13an izango da irteera, goizeko 6etan, Korreos parean. Aurreneko egunean 14 km.-ko (700m.-ko desnibela) egingo dute: Gavarnie (Col de Trentes)-Sarradets-Brecha Roland-Casteret-Goriz. Bretxa inguruan elurra egon daiteke; beraz, kranpoiak eramatea komeni da.

Hurrengo egunean, irailak 14, Gorizetik abiatu, Monte Perdidorra igo eta Ordasara jeitsiko dira; 22 km.-ko ibilaldia (1200m.-ko desnibela). Goi mendiko ibilbidea da eta, beraz, fisikoki ondo prestatuta joan behar da.

Irailaren 9a baino lehen eman behar da izena: bazkideak 60€, ez-bazkideak 70€, langabetuak 50€. Derri-gorrezkoa da federatuta egotea.

■ **TXIRRINDULARITZA**

Gazte mailako San Migel saria irailaren 6an

Aloña Mendiko Txirrindularitza sailak antolatuta, 56. San Migel saria jokatu da irailaren 6an, goizeko 10etan hasita. Junior eta 2. urteko Kadeteentzako proba izango da, Mendiko Kriteriumerako puntuagarria. Unibertsitate etorbidean hasi eta amaituko da. Tartean, Udana eta Atagoiti gainak igo beharko dituzte, eta helmugarako bidean Santipillauko aldapa motz baina pikoa. Eguerdiko 12ak pasatxoan iritsiko dira helmugara.

■ **KIROLDEGIA**

Neguko ordutegia indarrean

Irailarekin batera neguko ordutegia sartu da inarrean kiroldegian: astelehenerdik ostiralera 7,30-21:30; larunbatetan 9:00-13:00 eta 15:00-19:30; igande eta jai egunetan 9:00-13:30.

ATE IREKIAK ETA HASTAPEN SAIOAK ZUBIKOA KIROLDEGIAN - IRAILAK 8-12

Astea	Astelehena 8				Asteartea 9				Asteazkena 10				Osteguna 11				Ostirats 12	
	11:00	11:30	12:00	12:30	11:00	11:30	12:00	12:30	11:00	11:30	12:00	12:30	11:00	11:30	12:00	12:30	11:00	11:30
09/09																		
10/09																		
11/09																		
12/09																		
13/09																		
14/09																		
15/09																		
16/09																		
17/09																		
18/09																		
19/09																		
20/09																		

OHARRA: Pilates Hastapenerako izena eman behar da derrigorrez. Gainerako ekintzetan komenigarria da.



ATE IREKIAK irailak 8-12

Fitness jarduerak ezagutu eta probatzeko aukera, dohainik

Datorren astea, irailak 8-12, ate irekien astea izango da kiroldegiko fitness zerbitzuetan. Irailaren erditik aurrera eskainiko diren zerbitzuak ezagutu eta probatzeko aukera egongo da bertan.

Aste honetarako programatu diren aktibitate guztiak (ikus goiko taulan egutegia eta ordutegia) dohainik dira. Pilates-eko hastapen saioa 3 egunekoa izango da, eta izena eman behar da derrigorrez, kiroldegira deituta (943716375). Gainontzeko saioetan ez da beharrezkoa izena ematea, baina komeni da, plaza mugatuak dira eta.



2014-2015 ikasturtea

Irailaren 15ean jarriko da abian ikasturte berria fitness arloko ekintzetan

Irailaren 15ean jarriko da abian ikasturte berria Zubikoa kiroldegian fitness arloko zerbitzuetan. Pilates, Fit Bike, Aerobik, Aero-Dantza, Zumba, Erditze Osteko Gimnasia, Body Balance eta Body Tono, Mantentze Gimnasia, Hirugarren Adineko Gimnasia... Ugari dira aurten ere aukeran izango ditugun jarduera fisikoak. Gainera, iaz bezala, Running edo korrika egiteko hastapen taldea ere jarriko da martxan. Beheko taulan dago ikusgai egutegia eta ordutegia. Informazio gehiago, egoitezubikoa@gmail.com

DOAN

2014-2015 IKASTURTEA ZUBIKOA KIROLDEGIAN - FITNESS ZERBITZUAK

Astea	Astelehena 8				Asteartea 9				Asteazkena 10				Osteguna 11				Ostirats 12	
	11:00	11:30	12:00	12:30	11:00	11:30	12:00	12:30	11:00	11:30	12:00	12:30	11:00	11:30	12:00	12:30	11:00	11:30
09/09																		
10/09																		
11/09																		
12/09																		
13/09																		
14/09																		
15/09																		
16/09																		
17/09																		
18/09																		
19/09																		
20/09																		

OUTDOOR ZERBITZUAK - RUNNING HASTAPEN TALDEA

Astea	Astelehena 8	Asteartea 9	Asteazkena 10	Osteguna 11	Ostirats 12
09/09					
10/09					
11/09					
12/09					
13/09					
14/09					
15/09					
16/09					
17/09					
18/09					
19/09					
20/09					

'Iparragirre Oñatin'

► Jose Maria Iparragirre (1820-1881) Urretxuko olerkari eta musikariaren omenezko antzezlanaren taularatuko du Olaiturri elkarteak irailaren 27an

Makalena elkartearen baitan sortutako 'Olaiturri' kultur elkarteak herri antzerki berria plazaratuko du San Migel jaien atarian, hilaren 27an.

'Iparragirre Oñatin' du izena antzezlanak, eta izenburuak berak aditzera ematen duenez, 'Gernikako arbola', 'Agur Euskal Herriari' edo 'Kantari euskalduna' bezalako kantak sortu zituen Jose Maria Iparragirre Urretxuko musikari eta olerkariari eskainitako omenalditxo da.

Iparragirre behin baino gehiagotan egon zen Oñatin kantuan San Migel jaietan, Udalak gonbidatuta, eta 'Aloña Mendi' izeneko bertso dotoreak eskaini zizkion gure herriari.

Iñazio Irizarrek idatzi du 'Iparragirre Oñatin' antzezlanaren, eta 1880ko San Migeletan kokatzen da; ameriketan hainbat urtez ibili ondoren, Iparragirrek Oñatira egindako azken bisitaldiko gorabeherak jasotzen ditu. Handik hilabete gutxira, 1881eko apirilean hil zen

Urretxuko bertsolari eta kantaria.

Iparragirreren bizitzaren errepaso egiten da antzezlanean eta, jakina, musikak leku nabarmena dauka. Horregatik, Olaiturri elkarteko ohiko aktoreez gain, herriko hainbat musikari ere ikusiko ditugu taula gainean: Loli Ordoki, Amaia Azpiazu, Iñazio Ibarrondo, Eduardo Korkostegi, Amaia Biaian, Arantzazu Bikuña, Ainhoa Galdos...

Bi emanaldi Santa Anan

Horregatik, hain zuzen, muskak eta kantuek hainbesteko garrantzia dutela kontuan hartuz, antzezlanaren Santa Ana antzokian taularatuko dute arten. "Dukearen etxeko Lazarraga lorategian egingo genuke gustora, baina barraketako zaratarekin ez litzateke behar bezala apeztiatu eta gozatuko" adierazi digu Iñazio Irizar zuzendariak. Bi emanaldi egingo dituzte, 19:30etan eta 22:30etan.



Andres Zabala, Loli Ordoki, Isidro Palacin eta Joxe Mari Anduaga entsaioetako batean



Iparragirre sarri egon zen Oñatin kantuan

Olerkari eta musikari herrikoia izan zen Jose Maria Iparragirre (Urretxu, 1820-Ezkio, 1881). Bizimodu bohemioa eta abenturazalea izan zuen, eta, horregatik, Urretxuko bardoa ere deitzen zioten. Kitarra beti lagun, bertsoak eta kantuek inprobisatzen ibiltzen zen herriz herri. Teknikoki berritasun handirik ekarri ez bazuen ere, sentimenduen aldetik eragin handia izan du euskal kulturaren. Bere kantarik ezagunena, 'Gernikako arbola', euskaldunon nortasunaren ikur bilakatu da.

Hamalau urteko mutikoa zela, familiari ezer esan gabe Karlisten gudari talde batean sartu zen. Lehen Karlistaldia amaituta, Frantziara alde egin zuen 19 urterekin, eta bertako iraultzaileekin bat egin zuen. Napoleon III.aren estatu kolpearekin, Frantziatik ere bidali zuten, eta Europako hainbat herrialdetan ibili zen hainbat urtez. 1853an Euskal Herrira itzuli zen indultu bati esker, eta 'Gernikako Arbola' zortzikoa konposatu zuen. Baina laister erbestera zuten berriz ere, bere abestiekin herria aztoratzen zuelakoan. Ameriketara alde egin zuen bere emaztea izango zen Angela Kerexeta gaztearekin. Argentina eta Uruguai aldean ibili zen artzain 19 urtez. Zortzi seme-alaba izan zituzten. 1877an Euskal Herrira itzuli zen, familia Ameriketara utzita, eta herriz herri kantatzen atera zuen bizimodua. Oñatin ere behin baino gehiagotan egon zen San Migel jaietan Udalak gonbidatuta, eta 'Aloña Mendi' izeneko bertso dotoreak eskaini zizkion gure herriari.



ARRI
Industria Hornidurak
Burdindegia

Orain Oñatiarren zerbitzura!

Goribar auzoa, 10
Tel.: 943 78 11 18
suministrosarri@hotmail.com



Iñazio Irizarrek idatzi du 'Iparragirre Oñatin' antzerkia

Makalenakoen 13. antzezlan

Makalena elkartekoek plazaratzen duten 13. ikuskizuna izango da aurtengoa. 1977an egin zuten aurreneko herri antzerkia ('Herri ezteia'), sortu berria zen Herri Eguneko ospakizunen barruan. Orduz geroztik, zazpi ikuskizun ezberdin eta hamahiru emanaldi egin dituzte, Oñatiko historia eta beste garai batzuetako bizimodua eta ohiturak ezagutzera eman eta Oñatiko euskara indartzeko asmoz.

» PARTAIDEAK

- **Andres Zabala**
Joxe Mari Iparragirre
- **Joxe Mari Anduaga**
Zubiria, kitarra jolia
- **Karmen Biain**
Juana, ostatuko andria
- **Maribi Korkostegi**
Andresa, Juanaren ahizpa
- **Ixidro Palacin**
Hipolito, Oñatiko alkatea
- **Jabier Atxa**
Nazario, udaleko idazkaria
- **Amaita Azpiazu**
Madalen, abeslaria
- **Juan Mari Elortza**
Anbrosio, Gipuzkoakoko foru aldundiko ordezkaria
- **Martixu Baños**
Anbrosioren emaztea
- **Ana Mari Markuleta**
Kasilda, joskina
- **Ana Mari Lizeaga**
Bentura, Juanaren ama
- **Arantzazu Bikuña**
Balentina, abeslaria
- **Ainhoa Galdos**
Maxima, abeslaria
- **Arantxa Iturrioz**
Petra, soinujolea
- **Xabier Oregi**
Jabier, abeslaria
- **Arantxa Gartzia**
Arabako diputaziokoa
- **Enrike Olalde**
Eulogio, Bizkaiko foru aldundiko ordezkaria
- **M^a Angeles Altube**
Eulogioren emaztea
- **Iñaki Olalde**
Txomin, bertsolaria
- **Egoitz Aizpuru**
Tomas, bertsolaria
- **Xanti Lizarra**
Teodoro, irakaslea
- **Iñaxio Ibarrondo**
Iñaxio, piano-jolea
- **Eduardo Korkostegi**
Eduardo, abeslaria
- **Amaita Biain**
Martina, abeslaria
- **Loli Ordoki**
Sabina, abeslaria
- **Iñazio Irizar**
Benigno, abeslaria
- **Rosita Markuleta**
Genobeba, abeslaria

ARGAZKI IKASTAROAK Ilunpetan taldeak antolatuta. Hastapen eta Sakontze mailak.

Oñatiko ILUNPETAN Argazki Taldeak bi ikastaro antolatuko ditu urritik aurrera: **HASTAPEN** mailakoa bat, eta **SAKONTZE** mailakoa bestea.

'Argazkilaritza Hastapena' izeneko ikastaroa ohiko formatoan izango da: 10 saio, asteartetan (urriaren 14an hasita) 18:00etatik 19:30etara. Prezioa, 60€.

Bestalde, 'Argazkilaritza Sakontzen' izeneko ikastaroa eskainiko da aurten lehen aldiz. Aurrez Hastapen mailakoa egina dutenentzat edota argazkilaritzaren oinarritzko teknikak menperatzen dituztenei zuzenduta dago. Ikasturte osoko iraupena izango du, eta hiruhileka banatutako monografikoetan oinarrituko da: Paisaia, Erretratua eta Argazkigintza Dokumentala landuko dira.

Urriaren 14an hasiko da ikastaroa. Astean behingo saioak izango dira, 19:30etatik 21:00etara. Prezioa, 60€ hiruhileko. Izena eman edo informazio gehiago nahi izanez gero, idatzi ilunpetan@gmail.com helbidera, edo deitu 605 753 966 telefonora, urriaren 12a baino lehen.

Neguko ordutegia indarrean udal liburutegian

Irailarekin batera neguko ordutegia sartu da indarrean udal liburutegian. Helduen liburutegia: astelehenetik ostiralera 10:00-13:00 eta 16:30-20:30, eta larunbatetan 10:00-13:30.

Haur liburutegian irailaren 8tik aurrera sartuko da indarrean neguko ordutegia: astelehenetik ostiralera 16:30-19:30

Zortzi eskultore handiren erakusketa Arantzazun

Arantzazu Gaur Fundazioak, Arantzazuko Adiskideak elkartearekin elkarlanean, Oteiza, Chillida, Basterretxea eta Mendiburu artisten ondorengo belaunaldia osatzen duten zortzi euskal eskultoreren lanekin AMETS-KABI izeneko erakusketa osatu du. Erakusketan parte hartzen duten autoreak honakoak dira: Ricardo Ugarte (1942), José Ramón Anda (1949), José Zugasti (1952), Iñaki Ruiz de Eguino (1953), Iñigo Arregi (1954), Iñaki Olazabal (1959), Koldobika Jauregi (1959) eta Guillermo Olmo (1960). Eskultore bakoitzak hiru artelaneko ekarria egin dio bildumari.

Amets-Kabi erakusketa irailaren 5etik urriaren 19ra egongo da zabalik Gandiaga topagunean



TABERNA • JATEKETA

Bidebarrieta 6
Tel: 943 71 62 96
20560 OÑATI

FAGOR

INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA





Muko irakaslea eta Moriarti ekoiztetzeko kidea da Aitor Arregi



'Lasa eta Zabala' filmaren grabazioko une batean Aitor Mantxola

(info7.com)

BI OÑATIAK DONOSTIAKO ZINEMALDIAN

Urrezko Maskorraren lehian egongo den 'Loreak' filmeko gidoilari lanak egin ditu Aitor Arregik. Aitor Mantxolak berriz argazkilari zuzendari lanak egin ditu sail ofizialean baina lehiatik at emango duten 'Lasa eta Zabala' filmean.

Berezia izango da aurten Donostiako Zinemaldia oñatiarrontzat, bi ordezkari izango baititugu bertan. Batetik, Aitor Arregi zinegilearen bi lan ikusi ahal izango ditugu: Lehiaketa Ofizialerako aukeratu duten 'Loreak' film luzea, eta Zabaltegi sailean emango duten 'Zarautzen erosi zuen' film laburra.

'Loreak' filma Moriarti ekoiztetxearen lana da, eta bertako partaide den aldetik, Arregik parte-hartze zuzena izan du filmaren sorkuntzan; bigarren unitateko zuzendari, produktore eragile eta gidoilari lanetan jardun du.

Joxe Mari Goenaga eta Jon Garañok zuzendu dute filma. Lore sorta bana modu anonimoan jasotzen hasten diren hiru emakumeren istorioa kontatzen du. Lore sorta xume horiek goitik behera aldatuko dute hiru emakumeen bizimodua, ahaztutzat zituzten sentimenduak azaleratuz.

Euskaraz grabatu dute oso osorik, eta azpimarratzekoa da, hauxe dela Donostiako Zinemaldiaren historian Urrezko Maskorraren lehian izango den euskara hutsezko lehen filma.

Zinemaldiko lehiaketa ofizialean egotea sari handia da berez, ate asko zabaltzen dituelako lanean jarraitu ahal izateko; baina beste sariren bat lortzeko aukera ere ez du baztertzen Arregik. "Urrezko Maskorra lortzea oso zaila da, baina badaude beste sari batzuk (gidoia, zuzendaritza, aktoreak...), eta zergatik ez? Behin hor egonda, amestea libre da".

ZABALTEGIN ERE BAI

'Loreak' luzemetraiaz gain, Aitor Arregik berak zuzendutako 'Zarautzen erosi zuen' film laburra ere emango dute Zinemaldian. Eusko Jaurritzaren aurtengo 'Kimuak' katalogorako



Aitor Arregik zuzendu duen 'Zarautzen erosi zuen' film laburra Zabaltegin emango dute

aukeratua izan da, eta, beraz, zinemaldian aurkeztuko dute ofizialki, Kimuak-eko beste sei laburrekin batera.

Baina, horrez gain, Zabaltegi sailean ere emango dute, zinemaldiko zuzendariak berak Arregiri duela aste gutxi jakinarazi zion moduan. "Gustatu egin zaie, antza, eta oso pozik nago. Belodromoan emango dute milatik gora ikusleren aurrean, eta esperientzia ahaztezina izango da. Orain dela urte batzuk hasitako lanaren nolabaiteko onespina edo errekozimendua da hau, eta aurrera jarraitzeko indarra ematen du".

'LASA ETA ZABALA'

Aitor Mantxolak badaki zer den Donostiako Urrezko Maskorra irabaztea. Juanma Bajo Ulloaren 'Alas de Mariposa' filmarekin. Oraingoan ezin izango du saririk irabazi, sail ofizialean emango badute ere, lehiaketatik at egongo delako. "Osagai politiko handiko filma da, eta normala da lehiaketatik kanpo egotea" adierazi digu Mantxolak. "Sail ofizialean egotea gauza handia da, plataforma ederra delako filmarendako".

Pablo Malo donostiarrak zuzendu duen filmak GALen lehendabiziko ekintza du oinarri; Joxean Lasa eta Joxi Zabala Tolosako gazteen bahiketa, desagertzea eta erailketa.

Grabaketa ez zen batere erraza izan (kanpoko plano asko, eguraldi txarra, aktore asko...), baina oso gustura dago azken emaitzarekin. "Teknikoki oso maila altuko lana da, oso sendoa. Gaia oso delikatua da, baina ondo bideratuta dago, alderdi humanoari garrantzia emanez, politikoari baino gehiago".



Mantxola eta Pablo Malo zuzendaria (Deia.com)

Antixena gaztetxearen bigarren urteurrena

► **Herri bazkaria egingo dute irailaren 13an, bi urteko ibilbidea ospatzeko**



Antixena Gaztetxeak bi urte beteko ditu hil honetan. Bi urteko ibilbide honetan mila ekimen antolatuta dituzte jende askoren ekarpen eta ekimenei esker, izugarritzko bizia emanaz gaztetxeari eta herriari, oro har. Gazte askok parte hartu dute gaztetxean, modu batera edo bestera: kontzertuak jotzen, barran lanean, garbiketa lanetan, edo bere ekimenak bertara eramanez. Horregatik, gaztetxearen jardunean parte hartu duten herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte irailaren 13an egingo den herri bazkari- ra. Horretarako, **irailaren 8a** baino lehen eman behar da izena, gaztetxean bertan edo Ongi tabernan.

Ikasturte berrian zehar ere herriari bizia ematen jarraitzeko asmoa dutela adierazi dute gaztetxeko kideek.

YOGAko Hastapen Ikastaroa



Oñatiko Sanatana Dharma Yoga Eskolak hastapen mailako ikastaroa antolatu du ikasturte berriari begira. Yoga praktikatzen hasteko gogoz edo yoga zer den probatu nahi duten herritar guztiei irekita dago.

- DATAK: irailaren 15etik 18ra eta 22tik 25era
- IRAUPENA: 8 eguneko ikastaroa, astelehentik ostegunera
- ORDUTEGIA: 19:30 - 21:00
- LEKUA: Oñatiko Yoga Eskola (Bidebarrieta 28-behea)
- INFORMAZIOA eta IZEN-EMATEA: 610 953 794 / yogaonati@gmail.com

► ATZEKO KALEKO JAIXAK

IRAILAK 5: 16:00 Zinta lasterketa; 17:00 Hour jolasak; 19:00 Erraldoi eta txorimaloak, auzoko trikitilariak lagunduta; 22:30 Rock kontzertua: PURO CHILE, ZARTAKO eta ALTXATU. **IRAILAK 6:** 13:00 Auzokoen omenezko salda Naparrenako kantalian; 17:30 Sokamuturra eta poniak Arno etxearen eskutik; 19:00 Garagardo dastaketa; 19:30 Txorimalo eta erraldoiak; 20:30 Trikipotea; 22:30 Kontzertua MARIACHI DOMINGUEZ taldearekin; 00:00 Piroteknia saioa eta suzko zezena. Ondoren, Mariatxien jarraipena. **IRAILAK 7:** 15:30 Mus txapelketa Aloña tabernan; 16:00 Txirindulari probak; 18:30 Txorimalo eta erraldoiak; 22:00 Kepa eta Anderren kontzertua. Saskiaren zozketa eta itxaffero jaurtiketa.

► SAN MARTINGO JAIXAK

IRAILAK 12: 19:00 Martintxo txerriaren igoera; 19:30 Txorimaloak; 20:00 Pintxo-poteoa txosnan; 20:30 Musika Eskolako trikitilariak; 21:30 Kontzertua plazoletan: EZ!, BENEH, MARIANITOX BLAI eta DISCIPULOS DE DIONISQS; 03:00 DJ festa (San Martingo gaztetxe zaharrean): DJ IÑAKI CERQUEIRA eta DJ MIKEL GIL. **IRAILAK 13:** 11:00 Trikitrail (umeentzako krosa); 13:00 Triki potea; 14:30 Auzo-bazkaria bertsolariarekin (12€); 17:30 Umeentzako jokuak; 19:00 Txokolatada; 20:00 Martintxo txerriaren jeitsiera.



URBIXARA ESKURSIÑUA Elbarritu eta adinekoentzat

irailak 7 Oñatiko TRAUTI-Hesirik Gabe elkarteak antolatuta, elbarritu eta adinekoentzako irteera egingo da Urbixara. Interesatuak Rafael Kortabarriari (656711000) eman izena lehenbailehen kotxeentzako behar diren baimenak eskatu ahal izateko. Bazkaria egingo dute fondan jai giroan.

‘Bizi Pottoka!’



irailak 7 Arantzazuko Parketxeak Oñatiko Pottokaleku zalditegiarekin elkarlanean pottokak hobeto ezagutzeko jardunaldia antolatu du. Familia osoari eta, bereziki, gaztetxoei zuzenduta dago. Lehenengo(10:30), ‘Pottoka: mamuten garaiko euskal zaldia’ izeneko bideoa ikusteko aukera egongo da parketxean. Ondoren (12:00), pottokekin harremana sortu, ikusi, ikutu eta gainean ibiltzeko aukera egongo da Pottokalekun. Prezioa: 10€ (Familiek %20ko deskontua). Izen-ematea: 943782894

MENDI IRTEERA

‘Aizkorri. Unibertso karstikoa’

irailak 21 Arantzazuko Parketxeak eta Arantzazuko Adis-kideek aurtengorako antolatu dituzten sei mendi ibilaldietan bosgarrena egingo da irailaren 21ean. Angel Martinez Montecelo EHUKo geografo eta arkeologoak gidatutako ibilaldian, Aizkorriko unibertso karstikoa hobeto ezagutzeko aukera egongo da. Informazioa eta izen-ematea: arantzazu@gipuzkoamendizmendi.net / 943782894

TXALOKA LUDOTEKA

ikasturte berrirako prest

**Ordutegian aldaketa
emango da aurten;
16:45-19:45 egongo da
zabalik ludoteka**



Txalokako haurrak eta hezitzaileak iaz egindako irteera batean

Orporren ostean, hemen gatoz berriro ere Txaloka Ludotekaren ikasturte berriarekin. Gogoratu Txaloka Ludoteka irailetik ekainera bitartean zabalik egongo dela, 3-9 urte bitarteko haurrentzat. Bertan, haur eta hezitzaileek urteko programa osatu eta adosteko aukera izango dute haurren adierazpen eta parte-hartzea bultzatzu. Horrela, elkarlanean sortuko ditugu jolas, irteera, antzerki ... laztik hona ordutegian emango da aldaketa, izan ere, aurten 16.45-19.45era egongo da irekita. Hala ere, prezioa mantentzeko asmoa dugu. Honi dagokionez, gogoratu edozein momentutan matrikulatu daitekeela haurra urteko 60 euroko kuota bat ordainduta (bigarren umea 50 euro eta hirugarrena 40 euro). Horrez gain, metodologia berdina izango da: sartu-irten libreekin, adin nahasketak, kanpo espazioaren erabilera, haurren parte-hartzea ...

Aurten berrikuntza bezala, Iraila osoan zehar ekintza desberdinak antolatutako ditugu bai ludoteka bertan, bai herriko plazan ere ludotekako eskaintza herri osoa zabaltzeko asmoz. Herri osoa dago gonbidatuta ondorengo egutegian azaltzen diren ekitaldietan parte hartzera. Beraz, animatu eta gerturatu gurekin batera jolastera!

» IRAILEKO EKINTZA EGITARAUA. Herri osoa dago gonbidatuta

8 ZIRKO EGUNA (herriko plazan)	9	10 HERRI KIROLAK (herriko plazan)	11 SORKUNTZA TAILERRA (herriko plazan)	12 ALTXORRAREN BILA (herriko plazan)
15 IGELTSUZKO KARETA (Ludotekan)	16 SUKALDARITZA TAILERRA (Ludotekan)	17 TATUJAI TAILERRA (Ludotekan)	18 AINTZINAKO JOLASAK (Ludotekan)	19 WII eta XBOX JOLASAK (herriko plazan)
22 LOKALDAKETA (Ludotekan)	23 JOLAS KOOPERATIBOAK (Ludotekan)	24 ZINE ERKALDIA (Ludotekan)	25 TXONTXONGILO EMANALDIA (Ludotekan)	26 LUDOTEKAKO FESTA (herriko plazan)
29	30	1 ATE IREKIAK (ludotekan)	2 ATE IREKIAK (ludotekan)	3 ATE IREKIAK (ludotekan)
6	7	8	9 ATE IREKIAK (ludotekan)	10 ATE IREKIAK (ludotekan)

ADINA
3 eta 9
urte arteko neska-
mutikoei
zuzendutako
zerbitzua da
ludoteka.

MATRIKULA
Urteko edozein
momentutan
matrikula daiteke
haurra, 60 euroko
urteko kuota
ordainduta
(bigarren umea
50€, eta
hirugarrena 40€)

METODOLOGIA
sartu-irten librea,
adin nahasketak,
kanpo espazioaren
erabilera... Haurren
adierazpena eta
parte-hartzea
sustatuko da.
Hezitzaileekin
batera programa
osatu eta adosteko
aukera izango dute



- Instalazio elektrikoak
- Etxetresna elektrikoaren konponketak

Jose Moyua kalea 16, behea • Tel./Fax: 943 78 23 10
Mug. 615 74 94 94 • 20560 DNATI



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxa: 943 71 62 40



Guardiako farmaziak

(gaueko 10ak arte)

ANDUAGA

San Lorentzo 3, 943 78 21 16
Irailak 18, 26, 27, 28, 29 eta 30,
eta urriak 3 eta 7.

IGARTUA

Kale Zaharra 1, 943 78 01 22
Irailak 5, 6, 7, 9, 11, 12, 13, 14, 15
eta 17 eta urriak 8 eta 9.

GARATE

Kale Barria 42, 943 78 05 58
Irailak 4, 8, 10, 16, 19, 20, 21, 22
eta 23, eta urriak 1 eta 2.

JULDAIN

Kale Barria 6, 943 78 11 28
Irailak 24 eta 25, eta urriak 4, 5
eta 6.

Guardiako taxilariak

IRAILAK 1 - 7

JOSE LUIS RABANETE
658 732 709

IRAILAK 8 - 14

IOSU LERTXUNDI
663 031 322

IRAILAK 15 - 21

ANA ORUETA
943 534082 / 650 059 999

IRAILAK 22 - 28

JOSEBA ARANZABAL
943 78 02 52 / 636 257 169

IRAI. 29 - URRIAK 5

JUAN JOSE URRRA
943 79 71 72 / 606 004 340

OÑATIKO

TAXI GELTOKIA

943 78 03 65

MINUSBALIDOENTZAT EGOKITUTAKO TAXIA

943 400 500

Telefono interesgarriak

UDALETXEA

Udaletxea943 78 04 11
Udaltzaingoa943 08 10 00
Oñargi943 78 07 08

Gizarte zerbitzua943 03 77 00
Enplegu zerbitzua943 03 77 00
Olaburu zentroa943 71 62 73

TURISMOA

Turismo bulegoa943 78 34 53
Arrikutz Kobak943 08 20 00

KULTUR ETXEA

Kultur Etxea943 78 03 53
KZ Gunea943 02 36 72
Liburutegia943 71 61 11

EUSKARA-HEZKUNTZA

Euskaltegia943 78 24 96
Txaloka Ludoteka943 25 07 15
Txiki Txoko Haur Eskola943 71 64 05

KOMUNIKABIDEAK

Oñati Irratia943 78 20 72
Kontzejupetik943 78 20 72
GOIENA943 25 05 05

KIROLAK

Kiroldegia943 71 63 75
Aloña Mendi K. E.943 78 08 10

GAZTELEKUA

Gaztelekua943 71 60 94
Informazio bulegoa943 71 82 57
Informatika gela943 78 33 04

BESTE BATZUK

Natur Eskola943 71 60 94
Musika Eskola943 78 31 74
Helduen Eskola943 78 35 77
Bake epaitegia943 78 02 54
Korreos943 78 08 54
Notaritzia943 78 04 15
Parrokia943 78 18 98

OSASUNA

Oñatiko anbul.943 03 54 30
Larrialdi zerb.943 46 11 11
Arrasateko osp.943 03 53 00
SOS DEIAK112
Gurutze Gorria943 76 55 76
DYA943 46 46 22

ERTZANTZA

Bergara943 53 47 20

SUHILTZAILIAK

Oñati943 41 53 01

GARRAIOAK

PESA902 10 12 10
RENFE902 24 02 02

Odol ateraldia

HURRENGO ATERALDIAK

IRAILAK 12
URRIAK 10
AZAROAK 14
ABENDUAK 12

Txantxiku Ikastolako aretoan
(San Juan kalea, 1)
17:30 - 19:30

Auzoetako plastiko bilketa

HURRENGO BILKETAK IRAILAK 23 AZAROAK 25

Plastiko batzea ohiko bilketa
puntuetan egingo da.
Bilketa lekuak:
Zañartu: Zuazola inguruan
Murgia: Asentsio ermitan
Olabarrieta: Bus geltokian
ETEO atzealdean

Urrutzuko garbigunea

Astehenetik ostiralera
9:00-13:30 / 15:00-19:00
Larunbata 9:00-13:30

Tfn.: 943 78 36 67

Traste zaharren bilketa

HILEKO OSTEGUN GUZTIETAN

Traste zaharrak atera baino
lehen, 943 71 19 38 zenbakira
deitu behar da. Traste zaharrak
20:00-22:00
artean atera behar dira.

Merkatu Txikia

Oñatin, pisua osatzeko pertsona bat beharko genukeen bi langile gara. Interesaturik egonez gero, deitu mesedez arratsaldeko 18:00etatik aurrera 653 748 751 zenbakira.

Duplexa salgai. Ultzegin kalea 11, behe solairuan. 150m² -ko etxea, 17,5m²-ko garaje itxia eta 100m²-ko lorategia. Prezioa: 355.000€. Deitu: 609074127 / 649887917

Etxebizitza salgai Euskadi Etorbidean. 3 logela, 2 komun, 3 balkoi, egongela eta sukaldea. 244.000 €. Tel.: 606172128

Etxea alokatzen da Moia kalean. 75m², hiru logela, egongela, sukaldea eta komuna ditu. Eraberritua dago eta berogailua ere badu. 619829209 / 629951015

Klase partikularrak LH eta DBH mailak. Esperientzia handiko irakaslea. Ordu-tegi flexiblea, ikasleen beharren arabera. Jarraipen pertsonalizatua. Deitu: 943782843 / 653718030 (Jaione).

Lokala alokatzen da Bidebarrieta kalean, 68m²-koa. Deitu: 943533637

kontzejupetik@oinati.net / 943 78 20 72

Antxiñako fotografixak

Lizargarateko eguna

Urtero letxe, ospatu barri dittue aurrekomendittarrak eta bestelako kaletarrek be **Lizargarateko eguna eta erromerixia**. Abuztuaren 24an izan zan, eguraldi bikain eta jai-giro hobiarekin. Ehun eta berrogeta hamar lagun egon giñan bazkaitten eta egun guztian zihar hara ingurutatukoak beste ehundaka batzuk izango ziran. Zahar, nagusi, gazte eta umiak armonixa ederrian. **Laja gaztia soiñuaz, Lutxurdixo panderuaz eta Oier jazbanaz** majo saiatu ziran ixa eten barik eta ordu askotako jardunian bazterrak animaitten eta astinketan. Sasue bateko **Azaldittako erromerixa** famauak etorri xakun gogora. Hareik be abuztuaren erdi inguruan moldaitten ziran, hainbat herri-tako gazte ugari alkartuaz.

Lehen-go egunekua etzan edozein modutako jaixa izan zan. Izan be, aurten **50 urte** beteten dira **Lizargarateko alkartia** sortu zala. Historixa luzia dako Lizargaratek: Oñati eta Antzuola arteko mugan, Bergara be hurrian dakola, baserri eta benta moduan ezagutu geben 1960ko hamarkadara arte. Makiña bat lagun biziko zan bertan edota pasauko zan handik 500-600 urtian; **Txamao** mitikua, bestiak beste. Azkenengo bizilagunak, **Garaizabaldarrak**, 1964an Elorri-xora fan ziranian, Aurrekomendikoak, euren auzotasun berezixari eusteko, benta zaharrian alkartia sortzeia pentsau euen. Harrezkero hor dihardue garai bateko **errondari ospetsuen** jarraitzailleak, azkenaldi honetan Oñatiko **Lizargarate Trikitixa Elkarte**ko gaztien **ezinbesteko laguntzaiarekin**.

Dana dala, urteurren borobil hori aprobetxauaz, aurten beste ospakizun eta ekintza batzuk be buruketako asmua dago. Lan-talde batek **Aurrekomendiko kontu, pasadizo eta fotografixa zahar-rak** batzen dihardu. Jasotako argazkiekin **erakusketa** bat antolatuko da. Aurrerapen gisa hona hemen pare bat:

Bata Lizargaraten atarata dago 1950 aldera. Ezkerretik eskumara, mutil-kuadrillia agiri da juergan.

Atzekaldian: **Pedro Arregi**, Koixar Azpikua; eta **Bittoriano Kortabarria**, Sarramendikua. Aurrekaldian: **Joxemari Arregi**, Koixkar Azpikua; honen bizkar gainian, **Joxemari Zufiria**, Koixkar Garaikua; **Jexus Zufiria**, Koixkar Garaikua, eta **Luis Oñate**, soiñujole txantxiuarra.

Bestia, berriz, Koixkarreko ermita onduan ataratakua da hamar bat urte beranduago hango jaixetan. Ezkerretik eskumara eta goitik behera honeik dira ezagutu dittugunak:

Zutik atzian: **Felix Zufiria**, Koixkar Garaikua; **X. X.**; **Jesusa Guridi**, Antzuelas Beittikua; **Sabino Aiausti**, Koixkar Gaiñekua; **X. X.**; **Joxemari Zufiria**, Koixkar Garaikua; **Mariasun Arregi**, Koixkar Azpikua; eta **Joxe Zugasti**, Antzuelas Goittikua.

Erdixan jarritta: **Juan Esnaola Mendaro**, Antzuelas Etxebarrikua; **Pedro Aiausti**, Askazubikua; eta **Tomas Jauregi**, Duruangua.

Lurrian jarritta, bigarren illaran: **Bixente Zugasti**, Antzuelas Goittikua; **Maritxu Aiausti**, Askazubikua; **Joxepin Arregi**, Koixkar Azpikua; **Joxepa Aiausti**, Askazubikua; **Tomasa Jauregi**, Antzuolakua (?); eta lehenengo illaran: **Maritxu Zugasti**, Antzuelas Goittikua; eta **Santi Guridi**, Antzuelas Beittikua.



J. E.

Argazkixak Koixkar Garaiko Pedro Zufiriak ataratakua dira. Jesusa Guridik jareta, Migel Anjel Kortabarriak eskuratu dosku guri. Argibidiak, berriz, Mariasun eta Joxepin Arregiri nahiz Migel Anjel berari zor dostegu. Milla esker danoiri!



Arkauz zure etxea da.

ARKAUZ
GRUPO

ARETXABALETA 1950 - 2014 ARRASATE

60 urte baino gehiago

KOMAn
hizkuntzak
eta
teknologia
batera
doaz!



www.komalingua.com



Arrakastarako biak ezinbestekoak dira!

- 6 hilabetetik aurrerako umeendako klaseak **irakasle natiboekin**, EBBBko metodoa.
- Business **Beraien kultura ezagutzean dago ezberdintasuna!**
- Azterketetarako prestakuntza: Cambridge, Deif-Dall, Goethe, HEO... **TRINITY ETA ÖSD-en aztertzaile ofiziala gara.**
- Eskola laguntza: **Zuk ahal duzu!**

<p>Koma Arrasate Tele: +34 943 71 82 31 Inurieta 35, 46100 20300 Arrasate (Gipuzkoa)</p>	<p>Koma Oñati Tele: +34 943 71 82 30 Oñati 7, 46100 22560 Oñati (Gipuzkoa)</p>	<p>Koma Irún Tele: +34 943 62 85 82 Bedia de Azamala, 14 20304 Irún (Gipuzkoa)</p>
---	---	---

M grupo
amuebladora
mondragonesa

Amuebladora Mondragonesak

San Migel eta Errosaixo

jai zoriontsuak opa dizkizue!

kaltxoi
leku

Sofa
leku

BANAK
murriz

Centro hogar **MUJERILES**



Zigarrola 1 • Tel.: 943 71 10 12 • ARRASATE